



Bertsio elektroniko honen egilea: Ales Bengoetxea. Donostia.

Klasikoen Gordailuan:

<http://klasikoak.armiarma.com/idazlanak/A/AdemaPelegrin.htm>

KARMELA

Jean Pierre Harispe

Klasikoen Gordailuak egindako lanak oro dominio publikokoak dira, eta, Jabego Intelektualaren Legearen arabera jatorrizko idazlanak bestelako eskubiderik ez baleuka, nahi bezala erreproduzi daitezke.

*Egin-doakabea edo drama iru egitetan emana
jaun on Luis Calisalvo-ri*

Jaun maitea, ez naiz esker gabea:
Zutaz dakat biotza betea.
Mundu untan bizituren naizeño,
Neri zaude zeruetaraino.

Triste nintzen munduan ikusirik,
Ez zagoela neretzat ongirik;
Ezin nuen jasan biotz barnean,
Nere pena egun guzietan.

Jaungoikoak, egin zuen orduan,
Gizon on bat indarra eskuan:
Gizon arek, arimaz andiago,
Indar bainon biotz du geiago.

Gizon ura zuk ez duzu ikusten;
Apalzeak zuri du gordetzen,
Nik ordian ez dezaket isildu,
Neretako sobera egin du.

Ezin duzu gorde zure izena,
Andiegi zuk duzu omena,
Biotzeko zu nere gozamena,
Calisalvo, nik dautzut errana.

Harispe



ITZAURREA

Aspaldian, Eskual-errientzat zerbeit egiteko gogoa nakan. Gure izkuntza ederrarekin, gure aita zaarren balentziak eta indarrak kantatzea ederki aal zela, irakusterat eman nai nuen. Karlomanen denboretako eskualdunek, Altabizkarreko mendi gaiñetik, Rolanen gizonak arrika garbitu zituzten. Rolan bera, illik mendi tartean egondu zen. Gauza ederrak Rolanen gainean egin dire; baina geienak asmatuak dire. Liburuek gerla artaz gauza andirik erraten ez dute. Beaz; egin-doakabe edo drama egiteko, egiaren araberrako gauzak beartziren asmatu. Lerenburu deitzen dutan zaar bat eskualdunen buruzagi eman dut. Zazpi seme ditu, eta alaba bat, Karmela. Lerenburu zaarra Gernikakoa da, eta Altabizkarreko inguruetan, etsai gaisto bat badu, Araneder. Araneder jeloskorak seme bat du, Ramon, Karmelaren adiskidea. Araneder jelosiaz etsaien alde ematen da, eta berak bere eskuz, Rafael Lerenbururen seme maiteena iltzen du. Orduan urrikiz artua, badoa gordetzerat, eta bertze izen bat artzen du.

Ramon bere semeak, bere izen egiazkoa ez du ezagutzen. Mendizabal dela uste du, Apez batez altxatua beretarik urrun bizi izan delakotz, eta Ramon bakarrik gaztetik izendatua izan delakotz.

Naiz Araneder eskualdun gaizto bat izan, aren urriki andiak ematen diozkat, non eriotze andi batez altxatzen eta anditzen baitut.

Aiñitz errenkuratuko dire nere eskribitzeko modua. Mendi bertze aldeko anaiek bezela nai izan dut eskribitu: zeren iruditzen zait, ori dela modurik argiena eta garbiena. Jaun apez Darrigolek eta bertze anitz jakintsunek, kendu zituzten letra batzuek, nola *u*, *ç*, eta *q*. Ematen zuten gero, eta ez *guero*; gerla, eta ez *guerla*: zatozte, eta ez *çatozte*: baduk, eta ez *baduc*... Espaniako aldetan, utzi dute oraindik, *h*; apez eta ez *apheça*: boterea eta ez *botherea*. Naiz batzuek kontra izan, utziko nituzke, nik, oraindik bertze letra batzuk; zeren eskuara baita izkuntzarik zaarrena, eta izkuntza zaarretarat igatzen bagare, letra guttiago beti kausitzen beiti eietan. Letra *h*, uzten dut bakarrik, letra *c*-rekin, nola *chakurra*.

Batzuek erranen dute *h* uztian anitz itz, banatuak eta naasiak direla: baina zenbat itz badire itzkuntza guzietan ber berak direnak eskribituak, eta bizkitartean aditzen da beti zer erran nai duten, bertze itz batzuen ondotik edo aintzinetik direnaz geroztik. Beaz deusik ez du

erranai, itz berak izatea. Itz berak, anitz aldiz, artzen duen tokiaren arabera, anitz gauza ez berak erran nai ditu. Bertzenaz ere, bakotzak badu, bere ikuste arabera, eta egiaz, ezta andi, gauza ttiki ekieri begira egotea. Baditugu gauza ederragoak ikusteko, Larramendi, Lardizabal, Axular, Intxauspe eta Duvoisinekin egin dituzten lan ederretan.

Egin ditut ere uts batzuek, bertsutan, nere ustez aizu direnak: nola, *ai da*, ari da; *len*, leen; *aitzen dut*, aditzen dut. Izkuntza guzietan anditzen edo ttikitzen dire itz batzuk, bertsuaren arabera. Bertsuen batasunarentzat, geiago kontu egin dut, batzuetan, errateko moduari, eskribitzekoari bainon.

Aal guzia egin dut Eskualdunen Errelijione saindua, eta arima ederrak ikusterat emateko.

Oxala, Egin-Doakabe unek, asmu onak ematen baditu, eta Jainkoarenganat arima batzuek biurtzen.

Harispe, apezça



ITZ AURREA

Una egimen labur bat orai duela ogoi eta bortz urte egin dutana. Ez nuen billatzen orduan, ez dut geiago billatzen orai, mintzatzen ez den eskaldun lapur bat eskribatzea. Miñ ingarri da ikustea gure mintzaera zahar eta ederrean sumatzen diren obra geienak ezin adituzko hitz eta itzaldietan itzuliak direla. Itzaldi eiek jakintsunak gozatzten dituzte beharbada, baiñan ez ordian jende xeiak. Ez Mariñelek, ez langileek ez dituzte irakur ahal ezin errexki adituak direlakotz. Ez ote dituzte itzaldi bakotxean itz arrotz eta gogor batzu kausitzen, ez ote dute behar billatu nekez bere gogoetan zer hitz eiek erran nai duten? Jakintsun izkuntz ederrez burua naasia daukate. Eien mintzoa izan daiteke zuzen eta garbi, baiñan ote da jende xeiarena bainon legun eta argikiagoa?

Eskuara ez de bertze mintzaerak bezala. Ederkiena mintzatzen dutenak dire gure mendietako artzaiñak, Aiñoako laborariak, eta Donibaneke Kazkarotak.

Jende xeia da gure itzkuntzak dakan jakintsun eta bertsularirik andiena. Unek mintzatzen du eta kantatzen du zuzenkiena, eta argikiena. Garbi eta eztisonuzkoa, mendi bizkarretan, zelai illunpetan, erriska, bide zabal eta jendekorretik urrun, ursorgi lurrin batetik bezala, gure eskuara dabilla.

Itzaldia, eta ezin adituzko itzaldietan illun eroria dago, jakintsun andien lumaren azpian. Zertako? zeren obeki eskribatzeko beren burua bortxatzen baitute. Ohartu gabe ohea ongiaren etsaia dela.

Geiegi beren jakintasunez oartzen dire, bainan ez aski bertzen adimendu eta itztegiak. Guzien gañetik beren jakintasuna nai dute irakutsi, eta ongi argitaratu eskuararen itz lege guziak ezagutzen dituztela. Ez dakat nik, orren nahi atrebitu eta nausitua. Burutik urrundurik hitz goraki eta legekorra, nere aurtasunean aditu dutan eskuara eskribatzen dut. Onesten ditut gure mintzo nausiak biotz guziz, ez ordian adimenduz. Nere ama maitearen boz eztia dakat bihotzean, eta nere lumaren azpian. Nere loarkatzeko kantatzen zituen bertsu pollitak, nereak bainon ederragoak, eldu zaizkit oroitzerat. Seaskaren gain botatzen zituen airean deus ez balirez bezala, nere loaren ahantziak sekulakotz estal bezan. Oroitzen naiz bakarrik nere ama gaxoak, Abbadi jaunarekin zaramatzen solasez, eta oroitze orren egalpean nere luma

uzten dut laxoki dabillala. Ez nuke nai deusetan, gure itzkuntzaren lege nausituen arabera mintzatu, ez iskribatu. Legetsun jaunek beretzat pisuski eskribitzen dute. Ez dut eien erranez axolik. Nere libertatearen jeloskor andi bat naiz, ezin nere gizatasuna eta etorkitasuna arnega lezaket. Barka nazazu beaz nere irakurtzaille anaia maitea, nere hitz eta hitzaldi batzu ez balin badire legearen arabera. Nere nausiek ez balin badute nitaz oroitzapen on bat erabiltzen, zuk bederen urrikal izanen nauzu, eta beharbada egun batez nere gertamena nigar gozoetan irakurtuko duzu.



EGILEAK

LEHENBURU: Eskualdun zahar aita

KARMELA: Lehenbururen alaba

ARANEDER: Eskualdun etsaien aldekoa

RAMON MENDIZABAL: Aranederren semea

AITA JOSEP: Apeza

LIZAR: Eskualdun mutil bat

BIDEGAIN: Eskualdun bertze mutil bat

ARANEDER: Zazpi semeak

BERTZE: Eskualdun batzu

Lehen egimena LEHEN IRUDIA

Lehenburu aita eta Karmela

LEHENBURU

Beaz akabo da, Karmela maitea!
 Etsaiak artu du mendiko bidea!
 Karloman andiak, bere gizonekin
 Zelaia guziak egin ditu berdin.
 Ez dugu ikusten landare bat xutik.
 Arbol xumeenak artuak errotik,
 Zuraitz ederrenak, soro bazterrean,
 Errestan dabilta xirripa barnean.
 Gure mendietan ardi zoratuak
 Izituak oso dabilza galduak.
 Gure baratzeko lore pollitena
 Eroria dago lurean etzana.
 Abere gaxoak mortuan barnaka
 Iesi doazi jautzi marrumaka.
 Belarren azpian, ñurñur egin gabe,
 Ixil ixilkan soroaren jabe,
 Zirriztaka doaz urxoak gorderik
 Aldardi guziak odolez beterik!
 Beaz akabo da Karmela maitea,
 Etsaiak artu du mendiko bidea.

KARMELA

Aita zer nai duzu! Jainkoa egiña
 Ongia de beti; naiz ark egin miña.
 Aren eskutikan eldu zaizkigunak
 Arimen onetan zaizkigu emanak.
 Zertako bihotza geiegi damutu?
 Eta gure beitzak damuak anditu?
 Aski da miñ batez: goibel izan gabe,
 Jainkoaren miñez aski gare jabe.
 Ez bada damutan ondatu sobera,



Zure fede ona, nere bihotz bera.
Gure doakabez oso goibeldurik,
Eginen zintuzke bi miñ, miñ batetik.
Nork daki oraiño gauzak zertan diren!
Mendi bizkarrean zer den gertaturen?
Menturaz anaiak, gutaz oroiturik,
Erra bihotzean, Karloman arturik,
Aren trop andiak, oso garbiturik,
Etortzen zaizkigu, loriaz beterik!!

LEHENBURU

Oxala gauz eiek izanikan gure,
Zuk erran bezala gertatzen balire!
Bainan berandu da, gaineko mutillak,
Burdin zabalean jo ditu amarrak.
Ar zazu zokoan larru bihurtua,
Irakur nazazu liburu saindua.
Arkituko dugu hitz eder eietan,
Jainko gozamena gure miñ anditan.

KARMELA

Egun batez beaz Jakobek semeak,
Bazkatzen ai ziren beren artaldeak.
Illunak mundua zuenian estali,
Ez ziren oraiño etxerat itzuli.
Aita Joseperekin egon zen bakarrik,
Sukalde zokoan dena griñaturik.
Oiu guzieri gogo goibetetan,
Belarriak erne zituen xeletan.
Bainan oihaetik mendietaraño,
Errepiretatik zelaietaraño.
Etxe barnetikan deus ez zen aditzen,
Ibaiaren boza bakarrikan baizen.
Eguna zenean azkenik agertu,
Jakobek semea zuen besarkatu,
Eta han anaiei berriak artzeko,
Bere bihotzetik damua kentzeko,
Urrun, mendiz mendi du Josep igurtzen,
Eta belauniko lurrean eman zen.

Auspez, autsean burua gurturik,
Othoitz egin zuen bihotzen erditik,
Josep gan zen beaz, soro larretarat,
Anaia zaharraren antxet billatzerat.
Ekien ondorat etorri zeneko,
Eman ziren irriz bere griñendako.
Eta zeren aita Josep, gazteena,
Guzien gaiñetik zuen maiteena,
Gutizia tzarrez hek zuten asmatu,
Nola behar zuten aur gaxoa galdu.
Aitari, zioten, diogu erranen
Nola leoin batek Josep artu duen.
Ortan zirelarik, Rubenek diote:
Ez: urrun zazue burutik aparte,
Ifernu gorriko gutizi tzar ori,
Zeren Jaungoikoak daki gure berri.
Ez: eman zazue billuzi ondoan,
Deus miñikan gabe zillo baten zolan.
Baiñan ikusten tut salzaille gizonak
Ejiptotik unat etortzen direnak.
Ekieri beaz sal zagun anaia,
Ola eginen da gure gutizia.
Erran zen bezala Josep saldu zuten,
Aur gaxoa gabe etxeratu ziren.

LEHENBURU

Ortan geldi zaite Karmela maitea,
Hitz eietaz daukat bihotza betea.
Gizon oberenak ola galzen dire,
Gutizi tzarretan gozatzen badire.
Jainkoa guretzat izan daiei egun,
Belaunikaturik othoitz egin zagun.
Zeruetan zaren aita guziz onal
Omendua bedi zuk duzun izena.

**KARMELA**

Gure bihotzean, zu nai dugu nausi:
Zeren zuk egiñik, zuri beitgoazi.

LEHENBURU

Zu gure xedeaz ongi jabetzeko,
Iguzu grazia bethi egiteko
Zure nahiaren gogo doatsua,
Zeruetan barna bethi maitatua.

KARMELA

Egin ahal zagun zure gutizia,
Egun bakotzeko iguzu ogia.

LEHENBURU

Erortzen bagare zure eskupean,
Bertezar gaitzatzu bide zuzenean.

KARMELA

Badugu barkatzen egiñez ahala,
Egin Jauna guri, guk egin bezala.

LEHENBURU

Asmu gaixtoetan ez utz lerratzerat,
Gaizkiko leizean ez utz erortzerat
Seme maitetxoak: zuri jazarririk,
Zoriona dute, zurekin egonik.

KARMELA

Mundu untan diren gaitz guzietatik,
Begira gaitzazu debrua gaindurik.

LEHENBURU

Jauna!...

KARMELA

Bada norbeit mendien aldetik.
Oiu deiadarkak aditzen ditut nik.
Aita, leiotikan behatzerat noa.
Ikaretan nago, galtzen dut gogoa.

LEHENBURU

Aurra beha zazu; Jaungoikoa baitan
Emazu bihotza zorigaitz anditan.

KARMELA

Aita Josepekin anaia guziak
Unat eldu dire dena goibelduak.
Seiek bizkarrean gorputz bat damate.
Zer bada mendian gertatu zaiote?
Bizkitartean ba guziak or dire!
Aita Josepekin zortzi bat badire.
Goazen ikusterat! Emen dire sartzen,
Jainkoa! zer berri gaituzte ekartzen!



IRUDI II GARRENA

Lehenburu, Karmela, Aita Josep, Ramon Mendizabal eta zazpi anaiak

AITA JOSEP

Agur Karmel ona bakarrikan zare?

KARMELA

Othoitzean biak emen egon gare,
Baiñan zer zorigaitz ekartzen gaituzu?
Bihotz min handia kopetan dakazu.

LEHENBURU

Laster mintza zaite non dire semeak?
Egiaz uste dut direla galduak.

AITA JOSEP

Ez nerekin datoz, pizkor batez landan.
Bat bakarrik hil da mendi bizkarrean.
Jauna, gaizki diot zeruan bizi da.
Lurreko bizia, parean deus ez da.

LEHENBURU

Barka diezadazu, nere bihotz miña,
Ezin gorde zaket neri gaitz egiña
Atozte maiteak zuen aitaganat,
Aren besoetan negar egiterat.
*(Seme guziak besarkatzen ditu,
eta Rafael eskas dela ikusirik)*
Rafael, eskas da; añitz maite nuen!
Jainkoak kendu daut beretzat nai zuen.
Izan bedi nitaz beti maitatua.
Zeruan Rafael guziz doatsua.
Aurra zer aiz emen? Rafaelen alde,
Etortzen aiz unat bihotzaren orde?

AITA JOSEP

Or da Rafaelen adiskide leial
Oso maiteena: Ramon Mendizabal

KARMELA

Aita mintza zaite, zuk erran gaitzazu,
Rafael non hil den, berdin badakizu.
Goibel baldin bada bai eriotzea,
Miñago da guziz, deus ez aditzea,
Urrun galdu diren maiteen gainean.
Dudak anditzen tu bihotzen barnean,
Ekien eskasak guri miñ egiñak.
Ez begira, beaz, orain gure griñak.

AITA JOSEP

Altabizkarreko, sasien barnetik,
Ikusi gintuen urrun, urrutitik,
Karlomanen tropak ezin kondatuak,
Edoiak bezala beltzez edatuak.
Zelaia guzia zagoen belztua.
Ez ginduen aitzen, ibaia kantua.
Troparen burrunbak zituen betetzen
Aldardi guziak, nola re garbitzen.
Gu, gorderik giñen, arroken atzean.
Rafael zagoen mendi kanttalean,
Ikusteko norat etsaiak zoazin...
Ek urbiltziarekin egiten gaitu zin,
Gora menditikan, etortzen zirela,
Ardi zoratuak larrean bezala.
Orduan guziak makillak arturik,
Lasterka goazi puskak etxaturik,
Menditik beera; botatzen ditugu
Arroka zuriak; Ramon artzen dugu.
Baiñan iten gaitu: Rafaelenganat
Utzi nazazue, arekin iltzerat.
Rafaelen alde gan giñen kuxian.
An ikusten dugu mendien tartean,
Asko gizonekin ari zen arrika,



Edo geienekin makill ukaldika.
 Ramon, nere Ramon, badoako laster.
 Egiten diote makillekin eder.
 Beti makillekin amar hiltzen ditu.
 Rafael eta gu, eskututzen gaitu,
 Eta mendiz barna, gurekin jautsirik,
 Adiskide ona berak lagundurik,
 Erreka barnean, laster du gordetzen.
 Eta saetsean erne da gelditzen.
 Baiñan or eldu da eskualdun gaixto bat,
 Lurrean errestan ahala bezinbat.
 Kokoriko zaiku sorotik urbiltzen.
 Jadan etsaiari, salduak gintuen.
 Ez dezaket erran gizon ura nor den:
 Baiñan erranen dut nor ez den izanen.
 Egin guzietan izigarriena,
 Gizonaren gogoz gauz itsusiena,
 Da bere naiaz anaiak saltzea,
 Eta txarkeriez ongi gozatzea.
 Baiñan gu saltzea ez zitzaioen aski:
 Gaizkidunak beti, gutizi du gaizki.
 Azkenian beaz guri jazarri zen,
 Eta bere kolpez Rafael hil zuen.
 Ikusi gintuen orduan ikusi,
 Adiskide biak elkar ezin etsi:
 Ramonek Rafael, ez zezaken utzi,
 Bat bertzea gabe ez zitazken bizi.

SEME BATEK

Aita zuk bihotza duzu barkatzaille,
 Eta bertzen utsen oso gordetzaille.
 Gure salbatzeko Jainko guziz onak,
 Len egin zituen apez barkadunak.
 Zutarikan beaz ez dugu jakiñen,
 Gure salzaillea nor izan ote den.
 Baiñan nik badakit, ez dezaket gorde.
 Erranen dut gero bihotzaren orde
 Gizon tristearen, zorigaitz izena...
 Gu guzietarik igundua dena,

Izen doakabe, madarikatua,
 Eskualdun garbiez ańitz igundua,
 Etsai guzietaz izen maitatua,
 Ifernu leizetan, izen aipatua,
 Erranen aut beaz, erranen aut laster,
 Hi, aiz, azkenekotz: Ganix Araneder.

LEHENBURU

Araneder zela nork erranen zuen?
 Araneder lehen gizon andia zen.
 Banakien, aren etsaia nintzela,
 Iguntza neretzat andia zuela.
 Baiñan ortaraiñon ez nuen usteko
 Err aren andia zela neretako,
 Eskualdunen bihotz leial, on batean,
 Jaungoikoak egin arima barnean.

MENDIBURU

Jauna menditikan dator erraterat,
 Rolan eldu dela gure bentzuterat

LEHENBURU

Aurrak! artzatzue, makillak eskuan.
 Etsaiak gaintzeko karra biotzean.
 Eta nik dakaten liburu sainduan,
 Men egin zazue, bihotz erditikan,
 Jainkoa lekuko guziek arturik,
 Unat itzulzea gaixtuak gaindurik.

SEME BATEK *(guziek eskuak zabalitzen tuztelarik)*

Gu guziek orain men egiten dugu,
 Zerua guretzat, izaten badugu,
 Eskualdun guziak zutaz indarturik,
 Izanen direla loriaz beterik.
 Guk artuko dugu mendi zokoetan
 Ganix Araneder, lurrean errestan,
 Ementxet emanik oiñetan burua,
 Zillatuko dugu bere beltz larrua.



Ala gizon ortaz lurra garbiturik
Goxatuko gare bakean sarturik...
Gazin, gazin laster, anaia maiteak,
Gure mendietan iltzerat etsaiak.

KARMELA

Zoazte, zoazte anaia maiteak,
Indar zerukoaz osoki beteak,
Zoazte odolez, lurra garbitzerat,
Eskual erriaren oso guretzerat.

IRUDI III GARRENA

Ramon Mendizabal, Lehenburu, aita Josep, Karmela

RAMON MENDIZABAL

Ni geldituko naiz zurekin apur bat.
GeroËre ganen naiz anaiarenganat.
Ez dakit orainon nolako bihotzez,
Zer arimarekin, eta zer begiez,
Ikusiko dutan belarra ezia,
Nere Rafaelen odolez bustia.
Aren ikusteak emanen daut erra.
Baiñan errarekin, sorgituz nigarra,
Nere grin andiek ondatuko naute.
Indarra guziak, ezdeusten nazkate.

LEHENBURU

Hitz eietaz aurra griñak ixurtzean
Sartua dakizut bihotzen barnean.
Rafael nerea zinduela maite,
Zure nigar miñek ederki diote.
Zurekin arima banatua dakat.
Griña berak egun egiten gaitu bat.
Bia garenean damu batendako,
Elkar lagundurik, aren jasaiteko,
Bat bertziarekin, ongi gozaturik,
Solas eztietan griñak ixuririk,
Arimak batean odoleztatuak,
Elkarren nigarrez dire gozatuak.

AITA JOSEP

Ordua dakagu, banoa gelarat,
Gure gizonentzat othoitz egiterat.
Gure Jaungoikoak orain entzun beza,
Gure bihotzaren nigarrezko boza.
Mendian direnak indartzen baditu,
Eskualdun eskerrak maiz izanen ditu.



Aren aipamenaz beterik bazterrak,
 Eginen ditugu, Eliza ederrak.
 Aldare saindutan bihotzak emanik,
 Maitatuko dugu guziek berdinek.
 Eta sasietan odol ixuria,
 Izanen da gure arimen saria.
 Agur nere Ramon, len izan zarena.
 Izan zaite beti! Nere gozamena.

LEHENBURU

Aita gelatxoan, nai balin baduzu,
 Nerekin otoitzak eginen ditutzu.
 Badakizu berdin zenbatetarañon,
 Zure bazterrean nik nai dutan egon.
 Iruditzen zaiku gizon onduneri,
 Jainkoa zaikula zuekin ageri.
 Aren ontasunak zuek ditutze.
 Emen aren orde ematen tutzue.
 Gazen beaz aita, Jaungoiko oinetan,
 Buruak gurtzerat othoitz kartsuetan.

IRUDI IV GARRENA

Lehenburu eta aita Josep ateratzen dire.
Karmela eta Ramon

KARMELA

O zeru lurreko Jainko dohatsua,
 Garaiaz gaitzazu gizon erratsua,
 Zure laguntzeaz badugu bearra,
 Zeren zu baitzare gaxoen indarra...
 Ramon ixilikan etxe bazterretik,
 Ni ganen naiz arat, bide laburretik.
 Ikusiko nauzu gureak laguntzen,
 Memento batean, ez banaiz gelditzen.
 Utz nazu bakarrik emendik gaterat.
 Ez eman aitari deus gogoratzerat.

RAMON

Baiñan aur maitea nola ganen zare?

KARMELA

Ganix artuko dut, biak ganen gare.

RAMON

Baiñan, zure aita dena grinaturik...

KARMELA

Aitaren gainean ez izan kexurik,
 Eskual erria da egun dena guri.

RAMON

Aitaz eta nitaz deus ez zaitzu zuri?

KARMELA

Ah! Ramon hitz eiek, ikaratzen naute.
 Zure bihotz sua berekin dakate.
 Ikusten nuen nik orain aspalditik,



Maite ninduzula bihotz guzietik.
 Zure begi belzek erraten ninduten
 Arima gureek zer zuten gordetzen.
 Ni ere maizetan zuri beaturik,
 Ixilik nindagon, bihotza beterik.
 Nola bada Ramon, nola nik ez maita!
 Orrenbertze gauza zuk an egin eta.
 Ez ote gaitutzu bietan eskutu!
 Eta zorigaitzez osoki garbitu!
 Nere Rafaelen bihotzen mamia,
 Jaungoikoak eman bigarren anaia,
 Emendikan arat zu zare nerea,
 Eta bihotz guziz nakazu zurea.
 Jasaiten ditugun gauza goibeletan
 Arima bat dugu, gure gorputzetan.

RAMON

O gure bihotzen griña barnekoa!
 Orain sentitzen dut zorion gozoa.
 Egun nereganat jautsi da zerua
 Zure bozarekin, izar aingerua.
 Ez dezaket erran zer sentitzen dutan
 Orantxet zuretzat, bularren barnetan,
 Nere barne bozak aditu zintuen.
 Jainkoak zuretzat egiña ninduen.
 Ortarakotz beaz ez duzu gan behar.
 Galduko zintuzket, amodio izar.
 Zaude sukaldean, aitaren ondoan.
 Eta ni ganen naiz, mendirat orduan.

KARMELA

Zuk aise diozu, zu ganen zarela!

RAMON

Ez duzu sentitzen ala behar dela?

KARMELA

Orduan gu biek elkar galzen dugu.
 Eta lan beretan egoten gare gu.

RAMON

Ez nauzu beaz orain emen entzuturen?

KARMELA

Zure bihotzetik ez dut deus arturen.

RAMON

Zure baitan beaz itekorik ez dut.

KARMELA

Ni baiñon geiago, Ramon maite zaitut.
 Baiñan naiago dut, maiz eskual-erria.
 Arentzat dakat nik osoki bizia.
 Oiartzunetatik, eldu zaizkit neri
 Anaiaren bozak!

RAMON

Ez zait ba iduri...

KARMELA

Banoa kuxian.

RAMON

Baina aurra nola...

KARMELA

Zaude or maitea!...

RAMON

Karmela! Karmela!...



IRUDI V GARRENA

Karmela badoa, Ramon bakarrik

RAMON

Badoa lasterka bihotzaren jabe,
 Eta nere griñez axolikan gabe.
 Badoa mendirat nere miñarekin.
 Nik egin bearra, nai du berak egin.
 Badoa Karmela, nere zoriona!
 Nere bihotzaren frutu gozoena;
 Nere baratzeko lore pollitena,
 Nere grin anditan maite gozamena.
 Badoa ni baitan utzirik beldurra.
 Urrats bakotxean altxatzen du lurra.
 Eta ni, lazoki gorderikan nago.
 Indarra guzia besoetan dago;
 Deusik egin gabe galtzen dut bizia.
 Or betetzen ez da nere gutizia.
 Ez, ez, ez dezaket, ortan utzi gauza.
 Geiagokotz dakat, nik nere bihotza.
 Zer? nere maitea mendietan utzi
 Eta ni goxoki jauregian bizi!
 Zer? nik alferrikan, utziko dutala,
 Nere zain gaztetan ustelzen odola!
 Ez! bertzela lehen aurra nintzenian,
 Aitak altxatu nau mendizka gainean.
 Ez, ez, ez zerna! zuk erranikan ere
 Karmela! ganen naiz, orain ez naiz zure.
 Gure lur maiteak, oiukan ai zaizkit.
 Gan bear dutala nik, orain badakit.
 Zuk duzu ni baitan piztu su berria,
 Guziz maita dezan, nik Eskual Erria.
 Zoaz beaz maitea, nai duzun tokirat,
 Eldu naiz ere ni, zurekin hiltzerat.
 Gu biak batian erortzen bagare,
 Nerekin zeruan gozatuko zare.

IRUDI VI GARRENA

Lizar, Ramon

LIZAR

Ramon! non da Ramon! aren billa nabill.

RAMON

Zer zauku gertatu! gaituzte norbeit hill!

LIZAR

Ez! Ramon behar dut.

RAMON

Lizar, Ramon ni naiz.

Baiñan noren manuz unat etortzen haiz?

LIZAR

Jauna zure galdez mendian dabilza.
 Oraindik ez dakit non den tropa belza.
 Baiñan urrutitik oiuka diote:
 Etxean zaiztenak lasterka zatozte!
 Ramon Mendizabal? datorla! datorla!
 Etsaien eskutik, ar beza Karmela!

RAMON

Zer diozu Lizar?

LIZAR

Egia da Jauna.

RAMON

Etsaien eskutan?

LIZAR

Gure Karmel ona!

**RAMON**

Zorigaitz! zorigaitz! etsaien eskutan
 Nere andragaia dago nigarretan!
 Zerbeitek ni baitan ninduen erraten,
 Illun egun untan, zer zen gertaturen.
 Madarikatua lurrean errestan,
 Izan al ditezken, zorigaitz anditan,
 Izan bedi beti saldu gaituena!
 Etsaiek mendia dakate berena?

LIZAR

Ikusi nuen nik mendi kanttaletik.
 Erreka barnean besotan arturik,
 Berekin batean antxet zamatela,
 Zelaian barnaka, etsaiek, Karmela.

RAMON

Bainan zein alderat eramaten zuten
 Ez zinduen andik begiez ikusten?

LIZAR

Jauna soroetan odol ixuriak,
 Utzi tu bideak osoki gorriak.
 Odolen bidea, zuk an segitzean,
 Arkituko duzu Karmela larrean.

RAMON

Atoz, Lizar beaz, berdin zuk nai duzu.
 Eriotz kolpea zuk eman nakazu.
 Banoa! banoa! galdurik bihotza.
 Eskual Errientzat galtzerat bizitza.

Egimen bigarrena LEHEN IRUDIA

Aita Josep eta Araneder

ARANEDER

Agur aita Josep.

AITA JOSEP

Agur! nor zare zu?
 Ez zaitut ezautzen barka diezadazu.

ARANEDER

Begira begiak, ukitu eskuak...
 Zuri deusik orain ez dio bihotzak?

AITA JOSEP (*arritua*)

A ba Jaungoikoa! Zutaz naiz oroitzen.
 Unat etortzerat zare ausartatzen
 Ez dakizu beaz zoin etxetan zaren?

ARANEDER

Badakit ederki zoin etxetan naizen...
 Bainan nere Ramon non ote da bizi?
 Norekin etxean, zuk zinduen utzi?

AITA JOSEP

Beldur andietan ikaretan nago!
 Xeletan entzuten norbeit ote dago?
 Ez, bakarrik gare. Baatxe, baatxe,
 Itz eginen dugu, gu biek ementxe...
 Ramon, nik uste dut, menditarat gantzen.

ARANEDER (*gogoetan*)

Aitaren gaizkiak an ditu garbitzen!

**AITA JOSEP**

Ez bada gauz oitaz gogoa betetu,
 Eta urrikiez bihotza damutu.
 Jainkoaren manuz gaizki, nigartua,
 Da gure nigarrez oso garbitua.
 Gaizkiduna ziñen, baiñan zuk ordian
 Izan duzu barka bihotz odolian.
 Aixtian guziek gaiztotzat zintuzten.
 Nik bakarrik zutan, griña dut ikusten.
 Eta zure miñak lausengatziarekin,
 Ematen zaizkitzut barne bakiarekin,
 Jainko gozamina.

ARANEDER

Zuri tut eskerrak.

Aita, zer nai duzu, gaizkien beldurrak
 Beterikan daka nere dolu miña.
 Utsa barkatua, griña zait berdiña.
 Badire gaizkiak aren gaizkikoak,
 Non uzten beitzute frutu betikoak.
 Oraindik guzia, nik ez zaitut erran.
 Zuk ez adituak, badazkat barnean.
 Aita beha zazu.

AITA JOSEP

Nago dena zuri.

ARANEDER

Nere urrikia nai zaitut ixuri.
 Badakizu nola mendi bazterrian
 Ikusi ninduzun etzana lurrean?
 Egondut nintzen han urrikari miñez,
 Oso goibeldua, deus ezin egiñez.
 Noizian bein Rafael, agertzen zitzaitan,
 Amets bat bezala, nere begietan.
 Burutik beera zarion odola,
 Nik sasian utzi nuenian bezala.
 Batzuetan ere idekiz aoa,
 Beatzen ninduen galdurik gogoa.

Gure gurutzea bihotzean zuen.
 Eta boz eztiaz egiten ninduen:
 Jainko guziz onak barka diezazula!
 Hitz miñgarri eiek erraten ai dela,
 Etxatzen ninduen bere azken atsa.
 Eta bere baitaz betetzen bihotza!
 Beti dakat orain ariman sartua;
 Aren irudiaz burua nastua.
 Ezin dut mendian egin nik urratsa,
 Sentitu gabe or arek egin utsa.
 Arroka zuriek an erraten dute
 Nik egin gaizkia: sarrastatzen naute,
 Arima guzia: Bihotzez oiuka
 Egiten diotet nigarretan: Barka!
 Iardesten naute, barkarik ez dela,
 Oraindik darraiño menditan odola...
 Ibaia jaustean zelai larreetan,
 Soro zokoetan, oian illunpetan,
 Rafael izena, guziz erresaka,
 Daka barraiatzen: Iten diot: Barka!
 Baiñan geiagorik egiten nau goibel,
 Erranikan beti: Rafael! Rafael!
 Xirripak, jaustean menditik ñurñurka,
 Iten du: Rafael! Eta diot: Barka!
 Baiñan ur sorgian, neri zait agertzen
 Rafaelen itxura; dena nau betetzen..
 Gauza guzieri, munduan lasterka,
 Nere biotz guziz erraten dut: Barka!
 Neretzat ordian ez dago barkarik,
 Goibelki munduan nagoño bizirik.
 Alde guzietan erranikan: Barka!
 Beti dut Rafael, ariman barnaka!
 Aditzen dut beti xamur boz eztia:
 Ikusten odolez belarra, bustia...
 Olaxe damutan gaizki bizitzea
 Da bihotzarentzat maizegi iltzea!
 A! nere gaizkia, Ramonek baleki?

**AITA JOSEP**

Ramonek oraindik zutaz deus ez daki.

ARANEDER

Bizkitartean ba, naiz izan gorderik
Ikusi ninduen sasi gibeletik.

AITA JOSEP

Rafael bakarrik zuen ark ikusten.

ARANEDER

An, izen gurea du maizik entzuten.

AITA JOSEP

Nerekin delakotz gaztetik egondu,
Ezta bertze moduz emen izendatu.
Ezagun guziez, Ramon da deitua.
Izen bakar ortan dago oitua.
Ikusirik gero, zure zorigaitza,
Ari gordetzeko zuk an egin utsa.
Ramon Mendizabal izena duela
Erranik, eta zu menden zarella
Etsaien ondotik, sinetsia daka.
Mendizabal zare lur autan barnaka.
Niork emen ez du, niork ez sumatzen,
Mendizabal orrek nor duen gordetzen.
Gernika erritik Altabizkarraino,
Luze da bidea, nola gan araiño
Izen on garbia. Beaz ez ageri
Zure goibeltzeaz izena bertzeri.
Ementxet bertzeekin ixil zarenean
Ez utz ikusterat begien barnean.
Nik deituko zaitut aita Mendizabal.
Zure gogoetarik ez dezazula gal.

ARANEDER

Gernikatik unat bideak badire
Ekiek unañon etorriak dire.

AITA JOSEP

Emengo guziek egiz uste dute
Ill izan zarella, bederen diote.
Nola bihotz miñak baitzaitu mudatu,
Eta bertze moduz zare izendatu
Nior zu pizterat ez da ausartatzen.

ARANEDER

Baiñan nere Ramon dute ezagutzen.

AITA JOSEP

Dakizun bezala, semea, Gernikan,
Nerekin bizirik, ixil, gorderikan,
Niork emen ez du Ramon ezagutzen:
Zuk eta zureek bakarrikan baizen.
Emezortzi urte, bederen badire,
Ongi gure baitan oroitzen bagare
Etorri giñela biak oso goibel.
An maitatu zuen...

ARANEDER

Rafael! Rafael!
Gazte doakabe nik eskuez illa,
Nere bihotzaren ondotik abilla!
Akabo duk nitaz i galdu geroztik,
Ramonen bihotza judas batek hil dik.
Naiz zernai egiñik; ganik menditarat,
Itsaso barnaka mortu batetarat;
Zeruraiñon iga; sartu lur barnean;
Edo munduz mundu, nortu bazterrean,
Gorderikan egon, eskun edo ezker:
Izanen nauk beti Ganix Araneder.

Kantua (aditzen da)

I

Arbol baten tonttorrian,
Oatze baten goxoan,
Usoño bat arturik mokoan,



Arrano bat an zabillan.
Usoño pollit ura bezala,
Eraman daute Karmela...

II

Baratzeko lore ezti,
Diztianta, ta gaztea,
Ihintzaren xortañoz betea,
Bere nigarrez bustia.
Baratzeko lorea bezala.
An doa nere Karmela.

III

Mendi xokoan barnaka,
Ardi galdua lasterka,
Dolamenez jausten da meeka.
Eta xirripa ñurñurka;
Ardi eta xirripa bezala,
An doa nere Karmela.

IV

Etsai gaixtuek arturik,
Atzaparretan gorderik,
Daramate mendi bazterretik.
Jainkoa! Zure zerutik,
Oroit zaite zureak garela.
Begira zazu Karmela.

AITA JOSEP

Nondik eldu zaiku boz mingarri ori!
Arima betetzen gaitu gu bieril...
Orren grin andiak nork jasan letzake!
Karmela galdua! Nork sinets lezake!
Norbeit eldu zaiku...

ARANEDER

Beldurrian nago.

AITA JOSEP

Zaude! ni zurekin, emen naiz egongo,
Oroit zaite gero zer erran zaitudan.

IRUDI II GARRENA

Lehenburu, aita Josep, Araneder

LEHENBURU

Gau on aita Josep, billatzen zintudan.

ARANEDER (*apartaturik*)

Jauna! Lehenburu!

AITA JOSEP

Ni, nindagon emen,
Noiz othoiz ondoan etorriko zinen.

LEHENBURU

Othoitz kartsuetan ari nintzelarik,
Añitz egondu naiz, or loak arturik...
Baiñan zoin dakazu, zurekin Jaun ori?

AITA JOSEP

Aita Mendizabal.

ARANEDER

Bihotz guziz zuri.

LEHENBURU

Zer! Ramonen aita?

AITA JOSEP

Zuk erran bezala.

LEHENBURU

Ongi etorria or izan daielat!
Balin bazare zu Ramoni iduri,
Emendikan arat emen zaude guri!
Errana da beti itxur berarekin,
Anditzen direla aurrak guri berdin.



Zureak badaka bihotz bat andia,
Bere gorputzean arima garbia.
Nere odolaren seme maiteena,
Biziaren gostuz eskutu zuena!...

ARANEDER

Jaungoiko maitea!

AITA JOSEP

Zaude ba geldirik!

LEHENBURU

...Etsai gaixtoaren esku tzarretatik.

ARANEDER

Rafaël! Rafaël!

LEHENBURU

Ikusi zinduen?...

Naski zu mendirat arekin gan ziñen?
Zertako begiak gordetzen nazkatzu?
Nere miñez oso mindua zare zu?
Bazindakizu, nik zer irahun dutan!
Entzutearekin, hil zela mendian!
Zuk ere menturaz baditutzu griñak,
Bertzeri sekulan erran ez tutzunak.
Bizitze guzia da guziz gaizkia;
Ez dago mundua gozamen tokia.
Loak arturikan nindagon goxoki,
Jainkoari griñak erranez eztiki,
Noizeta, ni, golpez atzarraazi bait nau
Boz baten kantuak, erranikan gauz au:
«Jainko zeruko! iguzu Karmela!...
Baiñan egia da, hek artu dutela?»

AITA JOSEP

Zuk baiñan geiago, nik orain ez dakit.
Baiñan berri tzarrak andik eldu zaizkit.
Othoitz egiterat gu gan giñenean,

Emen egondu zen bertzeekin batean.
Gero Jaun unekin etorri naiz unat,
Atsegin anditan pozik zureganat.
Emen sartziarekin, ez dugu ikusi,
Nior zuretarik. Ez gintuen asi
Gure erasiak, non zure kantu berak
Ernetu zituen gure belarriak.
Zuk bezala...



IRUDI III GARRENA

Mendiburu, aita Josep, Araneder, Lehenburu

MENDIBURU

Zure galdez an dabilta,
Jauna, gureta zerua de beltza.
Ramon Mendizabal etsaien erdian,
Zelaian dabilla, zorigaitz andian.

LEHENBURU

Eta Karmela?

MENDIBURU

Ba Karmela damate,
Etsaiek zelaian berekin dakate.

ARANEDER

Orra norat doan egin dutan gauza,
Biak galdu ditut; aitik barka beza!
Dударikan ez zen Ramon an zagola,
Nere gaizkientzat ematen odola.

LEHENBURU *(othoitzean)*

Jauna zuri dazkat nik esker guziak,
Zuk egiñik zernai, gu gare zureak.
Zuk guri bihotza bete zorionez,
Edo zigorratuz gu ondatu miñez,
Izanen zare zu, Jainko guziz ona,
Esker guzietaz goraki gai dena.
Esku batez jorik gaitutzu damutzen,
Bertzeak ordian du miña leguntzen.
Mundu goibel untan gu zauriz beterik,
Zeruen agintzaz gu lausengaturik,
Entzutua dugu zer erran nai duzun;
Zuretzat pairatuz, zer izanen dugun.
Ez gaitutzu Jauna, lurrarentzat egin,

Baiñan izateko zerua zurekin.
Zenbatenaz emen dugu jasaituko,
Anbatenaz zutaz gare gozatuko.
Jo nazazu beaz: Zuk egin zauriek
Eskatzen zaituzte lañoka guziek.
Nere zoriona: zurekin geroan,
Rafael, Karmela, baditut zeruan.

AITA JOSEP

Nik nai nuen Jauna, zuri miña kendu;
Fedearen itzez damua legundu.
Baiñan ikusten dut Jainkoak ariman,
Zaizkitzula leen asmu, onak eman.
Naiz gure bihotzak arek egin erdi,
Gu guzietarik maitatua bedi!
Banoa kuxian mendien alderat,
Gure zelaietan, zer den ikusterat.

(Mendibururi)

Atoz zu, nerekin, irakus nazazun,
Gure maitetxuak non utzi ditutzun.

LEHENBURU

Zoazi gaixtuez, artuak badire
Eiekin Frantzirat, laster ganen zare.



IRUDI IV GARRENA

Lehenburu, Araneder

LEHENBURU

Eta zer diozu Ganix Mendizabal?

ARANEDER

Ni nago zurekin deus ez egin ahal,
Mendietan diren gure gazteentzat,
Aita Lehenburu, deus ezta neretzat,
Deus ez mundu untan, deus ez miñagorik,
Nola bi gazte ikustea galdurik!
Oraindik bederen, nere bihotzean,
Ez banu sentitzen, nik zer egin dutan,
Egonen nintake nigarrez bakean,
Izanik lausenga, miñaren tokian.
Baiñan, nola goza gozorikan gabe,
Izanik arima zorigaitzez jabe.
Nola, gau tristean, egin lo gozoak,
Burua betetzen duenian kexoak.
Ezta neretako gozamen osorik.
Arima guzia daukat, zauriturik.

LEHENBURU

Jaungoikoa baitan emazu bihotza,
Zure Ramonentzat egiñik othoitza.
Arkituko duzu, barnean bake bat
Zure miñendako behar den bezinbat.

ARANEDER

Baiñan bere griñak nau dena betetzen,
Egun guzietan bihotza xautzen.
Zuk aurren gainean nigar iten duzu,
Baiñan zure baitan bakea dakazu.
Gizonak barnean ote du pairatzen,
Bederen ariman bake du kausitzen.

Arimaz ordian ez badago garbi,
Griña batendako jasaiten ditu bi.
Nion eztu gero goxorik billatzen,
Bere baitan ditu griñak erabiltzen.
Toki guzietan miñak daramatza,
Ardi kolpatuak sasien arantza,
Barnegi sartua, dabillan bezala.

LEHENBURU

Beaz zure miñak eginez ahala
Ez dire kenduko.

ARANEDER

Barnegi sartuak,
Nere baitan dazkat, eta goortuak.
A bazindakizu, zuk emen nor naizen,
Ez nintake egon zurekin mintzatzen.

LEHENBURU

Bere bihotz miñak oso du gainditzen
Eta men berean burua nahasten.
Zer balio du zu dena xautzea,
Eta zure baitaz bihotza galtzea?

ARANEDER

Erran bear zaitut, ba, bizkitartean,
Nik zuri lenago zer egin zaitudan.

LEHENBURU

Neri zuk maitea, neri zerbeit egin,
Barkatua zaitut bihotz guziekin.

ARANEDER

Bainan ez dakizu zer barkatzen duzun.

LEHENBURU

Neri zer doakit, zu zare beardun,
Zorra kentzen zaitut.

**ARANEDER**

Barkatuko nauzu?

LEHENBURU

Barkatua zare.

ARANEDER

Baiñan zer zare zu.
 Gizon edo Jainko! gu guziak aurrak
 Gare zure parez. Erran itz ederrak
 Ederki badio! Nauzu barkaturen!
 Bihotz nik len illak, orain nau pizturen.
 Beaz Jauna baitan arturik indarra,
 Adi zazu nitaz, zer den gizon erra.

IRUDI V GARRENA*Aita Josep, Lehenburu, Araneder***AITA JOSEP**

Zorion! Zorion! emen da Karmela,
 Jainkoa lurrean onhestu daiela!
 Zuek aita biak alegera zaizte!
 Aurrek zuen miñak kentzen zaikitizute,
 Ramonek Karmela berak gureturik,
 Bere gizonekin unat ekarririk,
 Nai du gero berriz emendik gan arat.
 Etsaiak mendian oso garaitzerat...
 Emen eldu dire zuen aur maiteak
 Begiak goraki loriaz beteak.



IRUDI VI-GARRENA

*Karmela, Ramon sartzean,
Lehenburu, Araneder, aita Josep*

LEHENBURU

Zatozte! zatozte biak neregana,
Nere bihotzaren orain gozatzerat.

ARANEDER (*bere baitan*)

Ramon, nere Ramon! Nork erranen zuen!
Salzaille semea zoinen andia zen!
Nere zain guziak dazkat itzuliak!
Eta xutatuak buruan illiak.
Banoa gorderik, antxet gelatxoan,
Nigar eginen dut ixiltasunean.

IRUDI VII GARRENA

Karmela, Ramon, Lehenburu

LEHENBURU

Rafaelen alde nere gozatzeko,
Jainkoak eman daut semetzat betiko
Ramon Mendizabal. Zu nere Karmela.
Non ibilli zare? zoroa bezala?

KARMELA

Aita badakizu zenbat maite dutan
Nik Eskual erria. Nere bihotzean
Ezin gorde zaket zer dutan sentitzen.
Guzien gainetik ura dut maitatzen.
Ezta mundu untan deus unen parerik,
Bazter guzietan ongi billaturik.
Eskual erria da ama maiteena,
Bere lur odolaz azten gaituena.
Negua denian mendi xokoetan,
Ibaia egiko sasi pollitetan,
Dazka gorderikan xoriño gixenak,
Eta soropetan erbi belardunak.
Udako beroak etortzearekin,
Aritzen azpian itzaltxoarekin,
Berak zabaldurik leialki bularrak,
Ematen dazkigu landare ederrak.
Arroka zilloan urxoak baditu
Mendi bizkarrean, bagare berotu.
Egunaz lanean, unatzen bagare,
Soro lurrinduak zelaian badire.
Antxet xoriñoa kantuz ai delarik
Egiten dugu lo, lurrean goxorik.
Au da azkenekotz, au da nere lurra;
Emen ni sortu naiz, ni naiz unen aurra.
Gure gurasoak, emen egon ziren,
Ekien lurrean, ni naiz geldituren.



Nere odol berak, erraten nau aski,
 Emengo naizela emengotz osoki.
 Euskualdun zaharrak unek azi ditu,
 Eta hill ondoan belarrez gordetu.
 Guk gure urratsez alxatu errautsa,
 Da gure maiteen gorputzaren autsa...
 Emen diren gauzak bertzetan badire,
 Baiñan hek ordian, gureak ez dire.
 Bertze tokitako, mendi ta ibaiek,
 Arbol, belar, lore, larre, ta zelaiek,
 Ez gaituzte guri deusikan erraten,
 Ez eta bihotza batere ukitzen.
 Euskual erriak nau bakarrik gozatzen;
 Nere bihotzari hark daki mintzatzen.
 Beaz nere aita, urren ikustean,
 Gure lur maitea etsaien oiñetan,
 Sentitu nuen nik mugitzen odola,
 Nere ama galdu banuke bezala.
 Orduan niori erran gabe deusik,
 Emendik gan nintzen erresaka, pozik,
 Gureak mendian, ongi laguntzeko;
 Emendik etsaiak laster igurtzeko.
 Bainan eien alde ni ganintzenian,
 Ikusi nituen nere urbillean,
 Lau gizon nere zai, errekan zirenak,
 Ixilik, gorderik, lurean etzanak.
 Asirik lasterka ies egin nuen:
 Bainan eien batek atzeman ninduen.
 Orduan guziek pozikan arturik,
 Bertziak mendian xiztuka deiturik,
 Eraman ninduten zelaian barnaka
 Otsoak bezala oiur marrumaka.
 Nolanaizka gero ninduten ibiltzen,
 Aita zuretake, ni galdua nintzen.
 Oso sumindua zutaz etsiturik,
 Nigarrez nindagon, nereak galdurik;
 Noiz baitzat agertzen sasian gordea,
 Bere gizonekin, Ramontxo maitea.
 Altxatzen da laster, dena errabia.

Bi makilla kolpez hiltzen ditu bia.
 Euskualdun guziek Ramon ikusirik,
 Erra bihotzean kuxian arturik,
 An ziren etsaiak garbitu zituzten,
 Eta zureganat ekartzen ninduten.
 Orena berean, Ramon an zabillan
 Ikusteko ea sasi gibelian
 Etsaiak oraindik baziren gordeak,
 Edo belarretan xeletan etzanak.
 Nola mendi goian arranoen ama
 Biribilka dabill, etxatzian luma,
 Bere ohatzeko umeen gainean,
 Ongi goxatzeko hekiek barnean,
 Ala Ramon bera, gure ingurutan
 Zabillan lasterka soro bazterretan.

RAMON

Ederki gaitutzu Karmela kondatzen,
 Nik zer egin dutan. Ez duzu edertzen
 Ordian maitea, zuk egin duzuna:
 Zuk duzu xedea guziz apalduna.
 Aitaren gaiako alaba bortitza,
 Xamur bainan azkar dakazu bihotza.
 Gorputzen gainetik naiaz andiago
 Arimen indarrak ditutzu geiago.
 Ez dut nik ikusi zu bezalakorik:
 Indar, goxo, bortitz, eztiagokorik.
 Egin ditutzunak nik ditut erranen.
 Karmela guziek an dezaten omen.
 Sasi gibeletik gu xeletan giñen.
 Etsaiak ondolik laster eldu ziren.
 Mendi bizkarraren patarra beera,
 Karmelak botarik arri bat ederra,
 Bere leen kolpez, iru hiltzen ditu.
 Bertzeak botarik ies ematen tu.
 Ez zaioten eder gizon ekieri,
 Karmelak eietaz egitea irri.
 Or jazartzen dire, mendien gainetik,
 Tropako guziak Karmelen ondolik.



Baiñan ies ganik nere andre gaiak,
 Etsaiak mendian dazka banatuak,
 Eta eienganat itzultze guzitan
 Bat etzaten zuen kuxian oiñetan.
 Azkenian beaz, indarra galdurik,
 Bera erori zen han atsak anturik.
 Orduan etsaiek arrapatu zuten,
 Eta mendiz mendi pozik zaramaten.

LEHENBURU

Aski da maitea neri zait iduri,
 Zu biek ederki, bat bertzien berri
 Badakizuela, Ramon, zure aita
 Aixtian emen zen. Nerekin izketa
 Ari zen auhenez.

RAMON

Nere aita emen?
 Ordian oraintxet, ez dakizu non den?

LEHENBURU

Nere gelatxoan bear du hark izan,
 Nigar separekin ixil otoitzean.
 Karmela zoazi, eta deitu zazu.
 Arekin bakarrik hitz egingen duzu.

IRUDI VIII GARRENA

Lehenburu, Araneder, Ramon

ARANEDER

Seme doakabe.

RAMON

Aita zure Ramon!...
 Eldu zaitzu orain zureganat...

ARANEDER

Egon!
 Or zaude maitea, ez nai ni zure gai!

RAMON

Orrenbertze bada, naizela zure zai,
 Eta gero zutaz ez naiz gozaturen!
 Ikusi orduko zaitut damuturen?

LEHENBURU

Karmela goazin, aita ta semea
 Utz detzagun emen.

KARMELA

Arima betea
 Griñ andiez dakat: goazin.



IRUDI IX GARRENA

Araneder, Ramon

ARANEDER

Ramon! aurra!

RAMON

Nerekin izanik zer duzu bearra?
Ez dakizu beti zurea naizela?

ARANEDER

Ez naiz ni zurea. Zuk orain bertzela
Ikusiko nauzu.

RAMON

Bainan zer da ori.
Orain zer zorigaitz etorri da zuri?
Zure ingurutan izan duzu zerbeit?
Gure gurasotan hill ote da norbeit?

ARANEDER

Ez Ramon! ez aurra! askoz andiago,
Nere zain barnean, nere miña dago.

RAMON

Baiñan zu zerk bada erdiratzen zaitu?
Izate guziak zaizkitzute hartu?

ARANEDER

Ez munduko miñak deusikan ez dire
Nere miñarekin neurritzen badire.

RAMON

Baiñan mintza zaite, zure barne miñak,
Izanik andiak badire berdiñak:
Zernai gerta daien, ni nago zurekin.

ARANEDER

Ez dezakezuke, deus ordian egin.

RAMON

Bainan zuk ni baitan dakazu beldurra.

ARANEDER

Zu damututzea neri zait gogorra.
Ez dezaket aurra zuri deusik erran.
Arritu zintuzket aditze berean;
Eta beharbada gogoia galdurik,
Erori zintazke griñak garaiturik.

RAMON

Nere zain gaztetan, ikarak artua
Odola barnean dakat ormatua.
Zuk deus ez erranik, geiago nakazu
Bizia goibeltzen.

ARANEDER

Aditu nai duzu!
Erran ordutikan aita galtzen duzu.

RAMON

Beaz zure miñak bakar jasantzatzu.

ARANEDER (*bere baitan*)

Nere bihotzaren etsi mingarria,
Ni banaiz zahartzen, zu zaude berria.

RAMON

Aita sentitzen tut orain zure miñak.
Zorigaitza batek zaizkitzu emanak.

ARANEDER

Nola bere baitaz lur gaixto batetik,
Belar tzarra beti sasien ondotik
Altxatzen beitzauku; bihotzean ala



Gaizkiak maizikan oteak bezala,
Agertzen zaizkigu.

RAMON

Beldurrik ez izan,
Aita nik badakit zer nai duzun erran.
Zuk zernai munduan eginikan ere,
Ez duzu gaizkirik nere aita zare.
Seme garbi batek aitaren gaizkiak,
Ikusten ez ditu, naiz izan argiak.
Aski dakat orain: zu beti neretzat
Aita zare. Zuk an egiñak onatzat
Artuko ditut nik.

ARANEDER

Ez bada maitea
Zuk egin ongiez burua betea,
Zure begi onez ongitu gaizkiak.
Utz detzagun ortan azken erasiak.

RAMON

Aita badut zerbeit zuri errateko.

ARANEDER

Aurra mintza zaite.

RAMON

Deusik zuretakeo,
Gorderikan ez dut; nere bihotzean
Badakizu zenbat amodio dutan,
Zuk ikusi duzun aingeru batentzat.

ARANEDER

Aingeruak aurra ez dire zuretzat.
Ramon, nere Ramon: Karmela nai duzu!
Aingeru baten gai balin bazare zu,
Nere zorigaitzak zaitu damuturen;
Arima guzia zaitu ondaturen.
Nik orrenbertze miñ zuri egiñ eta

Orain behar zaitut, erran: zuk ez maita
Bihotz guzietik maitatu duzuna:
Zeren aita duzu zorigaitzaduna.
Unat eldu dire fexoki etsaiak,
Entzuten dituzu ekien marrumak?
Ramon goazin biak... Oxala mendian
Hiltzen banindute anaien erdian!
Euskual errientzat odol ixuriak.
Eginen gintuzke arima garbiak...



Hirugarren egimena LEHEN IRUDIA

Bidegain bakarrik, Mendiburu kanpotik

BIDEGAIN

Mendiburu!

MENDIBURU

Nere Jauna! zer nai duzu?

BIDEGAIN

Oraindik etsaiak ikusten ditutzu?

MENDIBURU

Ba Jauna, guziak zelaian zabaltzen
Ari dire laster.

BIDEGAIN

As zaite kondatzen.

MENDIBURU

I

Bat, bia, iru, lau,
Bortz, sei, zazpi, zortzi
Bederatzi, amar,
Ameka, amabi,
Amairu, amalau,
Amabortz, amasei,
Amazazpi, emezortzi,
Emeretzi, ogoi.

II

Millaka geiago,
Ezin kondatuak,
Mendiez gorago
Oso nausituak,

Unat eldu dire
Gure garbitzerat.
Bainan ganen gare
Ekien iltzerat.

III

Orra zertan diren
Anaiak zelaian.
Obeki len ziren
Mendien erdian.
Araneder tzarraz
Oraintxet salduak,
Etsaien indarraz,
Dire garaituak.

IV

Loreen azpian
Maiz dire gordetzen,
Baratze garbian
Ixilik gozatzen
Suge gaixtosuak.
Bagare urbiltzen
Eien ao tzarrak
Gaitu asikitzen

V

Madarikatua
Beti izan daicla!
Lorez hantzitua,
Sugea bezala,
Etortzen zaikuna
Eginez ahala,
Ortzez gaizkiduna,
Kentzerat odola.



IRUDI II GARRENA

Bidegain, Mendiburu sartzean

MENDIBURU

Ikusi duzu?

BIDEGAIN

Nor?

MENDIBURU

Gure saltzaillea!

Gaizki andiena guri egillea!

BIDEGAIN

Non zen?

MENDIBURU

Emen ori

BIDEGAIN

Emen zen bakarrik?

MENDIBURU

Emen ark sartzea ez zaukan beldurrik,

Ikusi nuen nik, aita Josepekin!

IXILIKAN BIEK ITZ NAI ZUTEN EGIN!

Bainan belarriak nik ernegi dazkat.

Emen gauz gorderik ez dago neretzat.

Nere belarriez ezin adituak,

Arimen begiez ditut ikusiak.

BIDEGAIN

Baiñan Mendiburu nork erran zintuen,

Ikusi duzuna sukaldean nor zen?

Araneder hill da guziek diote.

Bertze bat arentzat, dakazu, nik uste.

Emen orain dabill, Aita Mendizabal
Deitzen den gizon bat. Oso gizon leial.
Eta garbi dela guziz du omena,
Eder bainon andi du berak izena.
Nik ikusi nuen, emen egun artan,
Lehenbururekin, ari zen izketan.

MENDIBURU

Ura zen! ura zen! ez izan dudarik;
Ez dago mendian Araneder hilik.

BIDEGAIN

Norbeit eldu zaiku...

MENDIBURU

Goazin biak laster.

Biek hillen dugu orain Araneder.



IRUDI III GARRENA

Lehenburu, Bidegain, ateratzen ari delarik

LEHENBURU

Bidegain

BIDEGAIN

Zer Jauna?

LEHENBURU

Bazen zerbeit emen?
Orrekin bakarrik mintzatzen zu ziñen?

BIDEGAIN

Orrekin bakarrik

LEHENBURU

Andik zer diote?

BIDEGAIN

Etsaiek gureak gainditzen dituzte.

LEHENBURU

Jainkoal... Bidegain zoazi mendirat,
Nere gizoneri orain erraterat.
Etsaiak nausitzen oso bazaizkote,
Ni ganen naizela, iltzen ez banaute,
Nere guziekin bizia galtzerat,
Euskual errientzat arima uzterat.
Naiz izan adinez odola oztua,
Bihotza beti dut ongi berotua.
Lehenburutarrek ez dute bizirik,
Non ez duten uzten lurrerat botarik
Azkeneko etsai, guziz ergelena.

IRUDI IV GARRENA

Karmela, Lehenburu

KARMELA

Aita, gaiñetikan, an ederkiena
Ikusten ditugu anaia guziak,
Botatzen tuztela arroka zuriak!
Ez dakit emendik agertzen ote den
Deusik!...A ba zoinen bortizki ai diren,
Arriak etxatzen! Aita beha zazu!

LEHENBURU

Nik baiñon obeak begiak ditutzu,
Aurra, behatzatzu neretzat anaiak.
Erranen nauzu zuk, zoin diren gaindiak

KARMELA

Ramon ikusten dut, anaien ondoan,
Gapelu xuria bakarrik buruan
Ark daka...Mendian badabill lasterka!
Arat eta unat, makill dixiduka!
Anaiak ark berak ditu eskututzen!
Bere gibeletik bozaz konbidatzen!
Orain goiti doa! beiti dator orain!
Jauna! zer arrokak etsaien buru gain
Botatzen dituen !Ikaretan nago!
Mendi bizkarrean badoa gorago!
Anaia guziak ondotikan ditu!
An diran arrokak berriz botatzen tu!
Arriak millaka jautzikan dabilta!
Menditik beera. Ai !zer zorigaitza!

Ramon jo dute

An daramate!

Ai !da erori!

Illa iduri!...

O zer zorion!



Bihotzari on!
 Or da xutitzen!
 Eta saltatzen!
 Bere makilla
 Eder dabilla...
 Etsai gaixto bat
 Aal bezinbat,
 Zaio urbiltzen,
 Eta du jotzen!...
 Bainan maitea
 Artez betea
 Or zaio gurtzen!
 Ta eskapatzen...
 Berriz biribill
 Makilla dabill
 Etsai gainean!...
 Joa buruan,
 Etsai andia,
 An eroria,
 Ez da ernetzen,
 Ez da piztutzen!
 Luzez etzana
 Den andiena
 Dago lurrean!
 Ramon da gurtzen.
 Eta du artzen
 Etsai ezpata!
 A nere aita!
 Esker Jaunari,
 Guziz onari!
 Anaiak pozik
 Zutaz beterik
 Or eldu dire!
 Gu nausi gare!
 Azkenian beaz dire gan etsaiak,
 Ramonek cietaz gaitu nausituak!
 Zorion! zorion! Ezin dut geiago
 Gogoak utzirik emen ezin nago...

LEHENBURU

Karmela maitea ementxet jar zaite,
 Zure dolamenek bakea dakate.
 Bainan aitzen ditut oraindik oiua,
 Mendien aldetik gizon deiadarrak.
 Mendiburu!



IRUDI V GARRENA

Lehenburu, Karmela, Mendiburu kanpotik

MENDIBURU

Jauna!

LEHENBURU

Zer duk an ikusten

MENDIBURU

Etsaiak menditik laster eskapatzen.
Anaiak etxerat lorios etortzen!

LEHENBURU

Ea bertze moduz as ari kondatzen.

MENDIBURU

Ogoi, emeretzi,
Emezortzi, amazazpi,
Amasei, amabortz,
Amalau, amairu,
Amabi, ameka,
Amar, bederatzi,
Zortzi, zazpi, sei, bortz,
Lau, iru, bia, bat.

IRUDI VI GARRENA

Mendiburu, Karmela, Lehenburu

MENDIBURU (*sartzean*)

Ez dago mendian, gizonik geiago.
Rolan han etzanik bakarrik lo dago.
Ordian azpian lagunak baditu:
Jainkoak geroan atzarriko ditu.

KANTUA (*urrutian*)

I

An ditugu etsaiak osoki garbitu.
Eriotze eder bat hek dute arkitu,
Zertako unat
Gure mendirat
Ek etorri ziren.
Bertzek adi zatela zer gizonak garen.

II

Ramon Mendizabalek hil zituen amar,
Ura bezalako bat, guk ginduen bear.
Gizon andia,
Oso garbia,
Guziz maitatua.
Bazter guzietan du izen aipatua.

III

Gauak ezin du, izar pollitarik,
Non ez duen izaten zerua garbirik.
Gizon egiñak,
Oso berdiñak,
Diztiatzen dute,
Bihotz garbi batetik izanikan aste.



IV

Karlomanen tropako, gizon indardunak,
Mendiko bazterrean dagozi etzanak.

Arrano belzak

Eien ezurak

Argituko ditu.

Umien bazkatzeko behartu garbitu

V

Jaingoikoa barka zazu gure etsaieri.
Naiz gurekin gerletan berdin dire zuri,

Zure zeruan,

Bake goxoan

Zutaz gozatzatzu.

Ek berdin gu bezala zureak ditutzu.

KARMELA

Or dire! or dire! Anaia guziak,
Berekin dakarzte etsaien antziak

IRUDI VII GARRENA

*Ramon sartzen da, anaia guziakin,
Karmela, Lebenburu, Mendiburu*

RAMON

Emen uzten ditut aitaren oiñetan,
Indar andirekin artuak menditan.
Una non den Aita ezpata zuria
Gizonen odolez oraindik bustia.
Rolan egia da mutill suharra zen,
Bere zain gaztetan indarra bazuen.
Ez nuen ikusi nik aren parerik,
Arek bezin fexo besoa zuenik.
Bakarrik zagoen gure garaitzeko,
Bertziak gan ziren mendien artzeko.
Ikusi bazindu, aita, zoin ederki!
Gu guzien kontra eta zein bortizki
Ura bazabillan! ezpata eskuan!
Ibiltzen zuela airoski buruan!
Anaia guziak zituen galduak.
Eiek gu bezala zituzten salduak.
Rolan utzi zuten, Rolan ona bera,
Bakarrik, jausterat mendia beera.
Etsaiak baziren arroka tartean,
Ixilik zagozin, gure bazterrean.
Baiñan guk arriak etxatzearekin,
Guziek lasterka ies zuten egin.
Orduan ni ganik eien antzinerat,
Ek jazarri ziren laster neregana.
Ek ezpatarekin, ni makillarekin,
Asi ginen joka, bi aldetik berdin.
Azkenian Rolan antxet zen erori.
An zagon etzanik Karloman iduri.
Gu guziek minki egin dugu nigar,
Ura ikustean eder eta azkar,
Illa gure gatik. Eta men berean
Guk eman gintuen belaunak lurrean.

**SEME BATEK**

Rafaelen alde, aita, or dakazu
 Etsaien buruko bandera. Har zazu.
 Nere Karmelentzat bi eskumuturrak
 Ekarri ditut nik, urrezko ederrak.

BERTZE SEMEA

Goizik ernaturik, baratze batean
 Loreak bilzeko sartzen garenean,
 Beexten ditugu lore pollitenak,
 Berriki sortuak oso lurrindunak,
 Maite duguneri pozik emateko.
 Karmela lore hek dire zuretako.

BERTZE SEMEA

Nik ezaguturik zure gutizia
 Rafael gaxoak an zuen guzia
 Emen uzten zaitut. Una non dakazun
 Aren gurutzea.

BERTZE SEMEA

Gu gaitzatzu entzun,
 Aita gu batean an ibilli gare,
 Bildu ditugunen nausia zu zare.
 Nai ditutzun gauzak artuko ditutzu.
 Gu guziak berdin zureak gaitutzu.

AITA JOSEP

Bakezko gizona, nik ez dakat deusik,
 Zuri emateko, arima bat baizik;
 Arima ederra osoki garbia;
 Gure dolamenen gozamen ezia.
 Rafael beldurrez, eiek hill zintuzten.
 Jainkoaren eskuz nik zaitut ematen
 Ramon Mendizabal. Ar zazu semetzat,
 Zeruak Rafael artu du beretzat.

LEHENBURU

Aurak orain neri mintzoa doakit.
 Zer zor zaituztetan nik berdin badakit.
 Zerua neretzat onegi neri zaut.
 Seme bat kendurik bertze bat eman daut.
 Nik ez dut bertzerik, semeak zuentzat
 Ematea baizik Ramon anaiatzat...

(Ramoni mintzatzean).

Aurra, zuretako ez dakit zer egin.
 Ditudan guziak, nere biotzekin
 Ematen zaizkizut: or ditutzu zure.
 Eskual-erriaren semea, zu zare.
 Amaren odola egiaz zuk duzu.
 Izate guziak itzuli diozkatzu.
 Eta guti zaitzu zuri ematea
 Zerbeit on saritza, nere aur maitea.
 Ez duzu munduan izanen bakerik,
 Non ez zaren hiltzen guziak galdurik.
 Zu zare, zu zare, egiaz andia
 Besoez indardun, bihotzez ezia.
 Zu zare etsean seme bat xamurra,
 Eta mendietan etsaien beldurra.
 Zu zare guretzat zeru aingerua:
 Gu begiratzeko hark eman burua.
 Zuk nere semeak ditutzu eskutu.
 Zuk gure etsaiez gaituzu nausitu.
 Zuk nere Rafael zinduen maitatu,
 Zuk nere Karmela ninduzun segurtu,
 Zuk Eskual-erria gaitutzu guretu,
 Etsaien burua zuk duzu leertu
 Eta gure zaiñak indarrez betetu.
 Ontasun galduez gaituzu jabetu,
 Eta gure baitan bizitza berritu
 Zuk beaz azkenik gaituzu anditu
 A nere maitea! zer egin zuretzat.
 Zuk an egiñeta ainbertze guretzat.
 Nere baratzean ez dakat lorerik
 Zure xedearen osoki gai denik.



Bainan nik dutana, eskainduko zaitut,
 Zure bihotz gaia beharbada badut.
 Nere zaiñetako frutu gozoena,
 Gizon andi baten indar eztena,
 Nik eskaintzen zaitut, alaba; or duzu
 Rafael galdurik, Karmela baduzu.
 Aurrak leemixian goazin elizarat,
 Eskerrak Jaunari pozik ematerat.

IRUDI VIII GARRENA

Karmela, Ramon

KARMELA

Eta nere Ramon orain zer diozu?

RAMON

Zuretzat maitea oraindik ez nauzu.

KARMELA

Bizkitartean ba, biak nausi gare!
 Egun nere aitak egin zaitu gure.

RAMON

Bainan zure aita ez dago nerea.

KARMELA

Kopeta dakazu illunez betea.
 Zer gertatu zaitzu?

RAMON

Maitea, deusik ez.

KARMELA

Arima beteko nauzu zure miñez,
 Ramon!

RAMON

Ez Karmela, ez duzu jakinen,
 Bularren azpian zer dutan jasaiten,
 Jaungoikoak berak argituko zaitu:
 Guri eman miñak eztituko ditu.
 Egon gaiten beaz, biak ixilikan,
 Emanik xedeak aren eskuetan.

**KARMELA**

Ezin adi zaket, orain zuk zer duzun.

RAMON

Erranikan ere ezin duzu entzun,
Zertako ni naizen olaxe mudatu.
Zeren nere grina nik nai dut gordetu.

KARMELA

Beaz errana da ez nauzu maitatzen,
Zure bihotz ona, nik ez dut izanen.

RAMON

Zer erraten nauzu? beti maite zaitut,
Zuretzat bakarrik, nere biotza dut,
Jainkoaz Karmela zuk ditutzun miniez,
Ez nauzula bete arima zauriez.
Aski da neretzat orain jasaitea,
Jasaiten tutanak. Karmela maitea!
Aitaren baimena ez dezaket izan...
Zertako? Ez dakit. Arek gogoetan
Badaki zertako. Erranau betitik,
Zu ez maitatzeko, hark eginen gatik.
Bainan maite zaitut; ez dezaket gorde,
Zu nerea zare Jainkoaren orde.

KARMELA

Zernai izan daien, zure aita, tzarra,
Edo gizon ona. Nik zure bearra,
Dakat; aitzen duzu?

IRUDI IX GARRENA

Ramon, Karmela, Bidegain, Mendiburu

MENDIBURU (*sartzean*)

Ez naiz ixilduko...
Azkenekotz emen ni naiz mintzatuko!

BIDEGAIN

Bainan Mendiburu orain oroitari
Zoin dagozin emen barka zak aurreri.

MENDIBURU

Aurrek aitarena odola dakate;
Aitaren gaizkia hek eginen dute
Nik utzi Karmela orain ezkontzerat
Aranederrekin! lenago hiltzerat,
Lorios ganen naiz!...

RAMON

Nik sumatzen nuen!
Araneder ni naiz! Araneder emen!
Aita sekulako aurra galdu duzu.
Banoa Karmela zuretzat ez nauzu.
Ez naiz ni zure gai, izanez geroztik
Salzaille semea. Banoa emendik,
Urrun mendiz mendi mortu batetarat,
Nere ahalkea nonbeit gordetzerat.



IRUDI X GARRENA

Mendiburu, Lehenburu, Bidegain, Ramon, Karmela

LEHENBURU

Andikan oiuk nik ditut aditu.
Bainan zer zaizue zueri gertatu?

MENDIBURU

Baratze xokoan, Jauna balin bada,
Suge ohatze bat; beraz errana da
Eginbide dela zuek erretzea,
Ez arat gateko; edo garbitzea,
Sugeen arraza.

LEHENBURU

Ori egia duk.
Bainan baratzeak oso garbi dituk.

MENDIBURU

Ohoiñek etxean sartu nai badute,
Zuri erratea nai duzu; nik uste.

LEHENBURU

Bainan zer daasak, ire sugeekin.
Zoin ditut ekiek? zer nai ditek egin.

MENDIBURU

Sugeen azia etxean duzue.
Bizi balin bada laster hill zazue.

LEHENBURU

Ohoi eta sugez burua betea
Ezin duk errexa ire entzutea.

MENDIBURU

Jauna!

BIDEGAIN

Lehenburu! ez konturik egin,
Orren erraneri? gaizkiz ai da berdin?

MENDIBURU (*Ramon irakustean*)

Egia nik diot. Or duzu suga,
Araneder tzarrak izan du semea.

RAMON (*Lehenbururi belaunikaturik*)

Barka zuk nazazu, zeren ez nakien
Unat etortzean, noren aurra nintzen.
Dakidan geroztik, ez nintake egon
Leial, etxe untan, banoa!

KARMELA

Ez Ramon!

Zaude!

RAMON

Araneder! zurekin Karmela!
Oxala zuretzat ixuriz odola
Ill banintz mendian. (*Aparte*) Jauna zuk nai duzu.
Zure gutizia oso bete zazu.

LEHENBURU

Zaude Ramon, emen; aitaren gaizkiak,
Berdin zuk egiñez dire garbituak.

RAMON (*otoitzean*)

Jaungoikoa barka, zeruan aitari;
Berdin zuk dakizu arimaren berri.
Adios Karmela! Adios maitea.
Nere bihotzaren, hiltzeko galtea.
Zutaz, mundu untan pozik bizi nintzen,
Zutaz auhinetan, oraintxet naiz hillen.
(*Ramon ateratzen da, Bidegain ere*).

**IRUDI XI GARRENA***Lehenburu, Karmela, Mendiburu***LEHENBURU**

Oa, Mendiburu! bakarrik utz gaitzak,
Orra zer in duen ire mihi tzarrak,
Nerekin bear uen leenik mintzatu.
Gero bear nikan gauz ori garbitu.

IRUDI XII GARRENA*Lehenburu, Karmela***KARMELA**

Aita nere griñaz osoki artua,
Ez nintake bizi ola damutua.
Banoa gelarat ixiltasunean,
Nigar egiterat Jaunaren oinetan.



IRUDI XIII GARRENA

Lehenburu, Bidegain

BIDEGAIN

Jauna zure galdez etxe bazterrean
Dago aita Josep.

LEHENBURU

Banoa kuxian.

IRUDI XIV GARRENA

Bidegain bakarrik. Leiotik begira gogoetan dago apur bat, gero kantatzén asten da

I

Oi zer gauza ederrak ikusten tutan nik,
Zeru beltz zabalian argiez beterik,
Agertzen zaizkit neri izar bi pollitak.
Elkarri su begiez ematen musuak.

II

Zeruko bi esposak lurrari begira,
Dirdir egiten dute mendian beera,
Bat bertzien ondotik beti an dabilta,
Bainan begiz bakarrik, ek dute bihotza.

III

Eguna etortzian, or dire gordetzen
Zeren egun argiak baititu estaltzen.
Bainan ek ixilkan zeru mortuetan
Elkar dute ikusten beatze suzkotan.

IV

Izar eiek iduri bi bihotz baziren,
Jaungoikoak elkarrentzat eginak zituen:
Bat, Ramon Mendizabal, bertzia Karmela,
Elkar argitzen dute izarrek bezala.

V

Naiz ondotik ibilliz zeru leizondoan,
Izarrak ez litezke banatu musuan.
Zeren beren musuaz denak erretuak,
Guziak gintuzkete hurren xautuak.



VI

Izarrak zauzte bada urrun bat bertzetik!
 Zuek amodiotan, banatu geroztik,
 Elkar balin bazaizte, musu batez hiltzen.
 Eta balin badire munduak ondatzen.

IRUDI XV GARRENA

Kanta akabatzean sartzen da aita Josep, Ramon

AITA JOSEP

Ato! aur maitea! ato nereganat!

RAMON

Aita zu beharrez, etorri naiz unat.

AITA JOSEP

Beha zazu, Ramon, eta ikusazu
 Zer gizonen aurra, zaren oraintxet zu!
 Dazkitzut ekartzen odoleztatuak,
 Aitak zuretaiko utzi dituenak.

RAMON

Zer gertatu zaio?

AITA JOSEP

Berak nai zuena.
 Izan du mendian eriotze ona.
 Aren nai azkenak nik bakarrik dazkat:
 Azken atsarekin emanak zuretzat.



IRUDI XVI GARRENA

Lehenburu, Aita Josep, Ramon

LEHENBURU

Araneder hill da diote mendian,
Fexo andirekin etsaien erdian!
Zure aitak Ramon, berak egin utsak,
Odola eman ez ditu edertuak.
Emendikan arat garbi du izena.
Bazter guzietan, andi du omena.
Guziek lorios an ikusi dute.
Arrek erran itzak aipatzen dituzte.
Nere bazterrean zu nere semea
Geldituko zare ontasan jabea.

RAMON

Aita, zurea naiz; zuk erran bezala!

LEHENBURU

Ni ganen naiz beaz deitzerat Karmela!
Guraso guziak nai dut etor daiten;
Gertaira andi au emen adi zuten.
Arek egin duen, an eriotzea
Aditu zazue.

RAMON

Aita, Karmelari,
Errozu kuxian guziz dela neri.
Pozik eta goibel izanen naizela,
Bainan arendako bihotza dutala.

IRUDI XVII GARRENA

Lehenburu ateratzzen da, aita Josep, Ramon

RAMON

Griña da neretzat aita bat galzea;
Bainan miñago zen ura ikustea
Bizi zen bezala, Euskual errientzat
Hill denaz geroztik, ez dago neretzat
Geiago damurik.



IRUDI XVIII GARRENA

Aita Josep, Lehenburu, Karmela seme guziekin, eta Eskualdun zaarrak

LEHENBURU

Seme nere aurrak,
Eskual erriako, bilzardun zaharrak,
Ramonen aurrean buruak gurturik
Zenbat gizon suhar dela ikusirik,
Anaia bezala oso ar zazue.
An zer egin duen berdin dakizue.
Aita Josep, orain artaz mintza zaite:
Emen dagozinak entzuten zaituzte.

AITA JOSEP

Ikusi duzue, Ganix Araneder:
Arek eman duen odolari esker
Garaileak gare. Egin zuen gaizki,
Bainan garbitu du gaizkia ederki.
Anaia batzuek baziren ordian
Etsaiez artuak zelaian erdian.
Araneder berak ikusi orduko,
Eskualdun hekiek zirela galduko,
Jautsi zen lasterka mendian behera,
Etsaieri joka jazarri zen, bera.
Bainan gizon batek, ahal guziekin,
Ek guzien kontra, zer zezaken egin?
Artu zuten beaz bere lagunekin.
Banatu gintuzten han guziak berdin.
Entzun zuteneko Rolan hilla zela,
Mendi bazterrean etzana zagoela!
Eskualdun guziak nai zituzten artu:
Ibaien uretan banazka itotu.
Ni eien artean oso etsitua,
Nindagon arima urrikiz antua.
Giz hiltzaille batzu urbilduak ziren
Nitaz, odol mozkor. Alxatu nituen

Bi begiak, jadan, Jainkoaren orde
Utsak barkatzeko. Zeruaren alde
Denak eman ginen othoitz kartsuetan.
Arrasta entzuten behazun anditan
Adios eginik Eskual erriari,
Gure arimeko maite guziera,
Etsituak ginen, noiz alxatzen baita,
Nere bazterretik galai unen aita.
Eta bere boza goraki botarik,
Gurutze batekin berak zin eginik,
Erraten du gora: «Emen zaretenak.
Eskualdun garbien etsai andienak,
Adi nazazue: Rolan hill duenak,
Saritu letzake bere tzar eginak.
Jaungoiko gizonak zaiztenaz geroztik,
Eztutzue hillen auek batengatik.
Rolan hill duena ni naiz: ar nazue
Bainan ek guziak utziko tutzue...»
Ek erratiarekin belaunikatu zen.
Nere besoetan nigar egin zuen.
Zutaz nere Ramon mintzatzen ninduen.
Orain Karmelen gai ziñela zioen.
Zuretzat bihotzez egiñik othoitzza,
Bere anaientzat emanik bizitza,
Jainkoarenganat lorioski gan zen...
Etsaiek orduan deslotu gintuzten.

MENDIBURU

Ori da! ori da! egiaz gizona!
Izen loitua anditu duena!
Gaizki leenago ni mintzatu nintzen.
Orainxet ordian ez naiz baraturen
Ongi erratetik.

LEHENBURU

Ramon emen duzu
Orain zure aita! Zureak ditutzu
Anaia guziak! Omentze zaituzte.
Emendikan arat zu naiko zaituzte



Eskual erriako semeen burutzat.
Gure lurretako gizon gudaritzat.
Nere eskutikan har zazu Karmela
Bat bertzien dohain izan zaitezteela.

Donostian egiña 1884garren urtean

EUSKAL IDAZKIAK



ONDARRABIAKO ARRANTZALEA

I

Igande besta goizean
Zagoen arrantzale bat
Sagardi baten azpian.
Bere gogotan zagon pentsatzen
Zoin zuen bizi tristea,
Zenbat pena negar zenbat,
Bihotza zauriz betea
Zuen uretan ixurtzen.

II

Mariñelek itsasoan
Ederki bere bizitza
Arkitzen dute lanean.
Baiñan geienek dute kausitzen
Arroketan itzulirik,
Itotzean eriotza:
Eien negarrez beterik
Itsasoa da gazitzen

III

Gizonaren negar miñak
Ur gozoak mintzen ditu.
Mendi kozkor, lur berdinak,
Gaztelu, etxol, mundu osoa
Darabil marrask anditan:
Nihork ezin du neurritu
Arimak daukan barnean,
Negarrezko itsasoa.

IV

Guk egin utsak zer dire
Gure griñaren aurrean!
Odolez estaltzen dire.
Sagardo gozoz azten garela!

Arrantzale jaungoikoak
Arnoa eran ondoan
Guregatik, amulsuak
Ixuri zuen odola.

V

Sagardoaren barnean
Etxeko nahi gabeak
Arkitzen dire maizean.
Itsas andiko mendebaletik
Maiz ateratzen bagare,
Aurren artean tristeak
Penetan erortzen gare,
Oiu, negarrek arturik.

VI

Arrantzalea zagoen
Asmu beltzetan tristerik
Bainan kolpez alxatu zen.
Sagar arbola lorez betea
Zaukan begien aurrean:
Eta kuxian pizturik
Sentitu zuen barnean
Bihotzen pake maitea.

VII

Orduan penak utzirik
Alegeratzen asi zen,
Kantuz eman zen pozturik:
Arbol maitea, frutu gozoa!
Zuk dezu pizten odola,
Zuk nere zañak berotzen,
Su berri batek bezala
Ernetzen bihotz osoa.

VIII

Itsasoko ur gazitan
Mihia mintzen badugu
Eztitzen dugu zu baitan
Zeren gatzaren gustu garratza



Gozoki duzu leguntzen,
Zurekin artzen badegu
Eta batean ddastatzen
Frigiturikan legatza.

IX

Atozte! adiskideak!
Gaur miñak aztu detzagun
Eskutan baso beteak.
Eran detzagun sagar arnoan
Gure negar negukoak,
Guziek ito detzagun
Bihotzen asmu gaiztoak
Baso distiant ondoan.

X

Geiegi dugu sofritu.
Nik ez dut orain azturen
Arrańik ezin arkitu.
Goizetik arrats deusik saretan,
Arrańik ez itsasoan,
Ikus dezagun bederen
Ea diren sagardoan
Artu detzagun xurrupean.

XI

Aal balitz izaitea
Munduan bizi berdińa,
Gure Jaungoiko maitea.
Mende guzitan jaun betikoa,
Itsasoan garenean
Iguzu beti sardińa
Eta gero leiorrean
Sagardo gozo naikoa.

XII

Ederki penitentzia
Egiten dugu neguan,

Ar zazu pazientzia.
Barur anditan beti bornuan
Egoiten gara bustiak,
Asko sofritu ondoan
Ezar gaitzatzu guziak
Salbamenduko portuan.



AXERIA ETA BELEA

Bele jauna haitz ttonttorroan
 Tente zagon gasna bat mokoan.
 Azeri bat usañez azia
 Eldu zaio muturra zuria.
 Iten dio begiez azkurren:
 «Agur Jauna ! zoin pollita zaren!
 Zoin ederra ! Egiaz nabilla.
 Naiz izanik giza bat zirtzilla
 Zure boza legun eta guri
 Balin bada zure luma isuri.
 Oihanpeko erregea zare;
 Gu guziak parez deus ez gare.»
 Itz cietaz bele anpatua
 Zabaldurik astoki mokoa,
 Asten zaio kantatzen salmoa
 Emanikan aots betikoa...
 Gasna zaio mokotik erortzen,
 Axeria kuxian jabetzen.
 Zaukalarik atzapar tartetan
 Malzur tzarrak iten dio bertan:
 Bele asto urgulluz kantari,
 Eman nauzu egungo janari.
 Eta boza alxatuz gorago
 trufa baiñon musika geiago
 Jadan gasnaz bizarra betea
 Jaidosten du irria zurrutan:
 Adi zazu apo tetelea:
 Tripa kontu erran alabantzak
 Urgulluak merezi bengantzak
 Maiz direla malzurren onetan.
 Gure gostuz nik jaten dut gasna.
 Ez zare zu errege berdiña
 Naiago dut anitzez usoa
 Musde bele zu zare zozoa.
 Orai ere badire munduan

Axeri tzar ta bele tontoak.
 Itz ederrak tuztenak aoan,
 Eskuz dire maizegi lapurrak.
 Diputatu axeri malzurak
 Populua dute izorratzen.
 Alabantzez azturik, ta berek,
 Arin gasna dute zurruputzen.



NEGUKO ARRATSETAN SU ONDOAN KONTU-KONTARI

(Nere adiskide maite on Antonio Arzak jaunari)

Donostiarrek aintz irriak eta jostetak, eta janziak maite omen dituzte. Una nun daukaten kondaira xiki bat, donostiar batek arras poliki eman dutana, eta zuretzat izkribatzen dutana.

Egun batez beaz, Piarres apostoluak Zeruko atia utzi bear izan zuen apur bat.

Minez omen zagoen, naiz Zeruan ezten minik. Norbeiten billa zebillalarik aren eskuetan bere kargua Zeruko giltzakin emateko, ikusi zuen Sebastian, Donostiaren patroia, eta erran zion:

—Adi ezazu adixkide maitea, ez ote zintuzke idukiko nere giltzak, denbora laburtxo bat?

—Atsegin andirekin, erraten dio Sebastianek.

—Bainan, ardiasten dio Piarresek, kontu egin bearko duzu, ez uzteko nornai emen sartzerat: zeren bertzenaz akabo nintake. Zuk Sebastian, Sebastian zarela kotz, donostiar guziak zerurat iganarazi naiko ditutzu; eta ezta ori nere kontua, ez eta ere justua.

Bea zazu: donostiar guziak jostakorrak eta bizi-gozotiarrak dire. Emo zazute, janari eta edari ona, eta «xirula» eta «tuntuna» ez tire gaizki trufatzen bertze gaineko gauz guzietaz. Josteta izanez geroztik ez tire geiago okupatzen, ez Zeruan, ez ifernuan, ez Jainkuaz ez eta ere gure erresumeko saindu guziez. Ikusten ditutzu itsasoaren egian nola dabilzan? Beren buruari atsegin guziak ematen dituzte.

Beaz, Sebastian, naiz giza ona eta biotz eztkoa izan, bear duzu ez utzi donostiarrrik emen sartzerat.

—Bainan, dio Sebastianek, izan zazu urrikalde pixka bat nere erritarrentzat; zeren ez tute eiek falta andirik, burua dute ariña, bainan biotz bera. Galde azu Jainkoari zertako eman dioten xorotasuna pres-tutasunaren tokian.

—Zer nai duzu bada, erraten du orduan Piarresek, nik ezte-zaket bertzela egin. Eztut nai donostiarrrik batere Zeruan. Zeren baka-rrik izanen litake, edo bertze batzuekin. Bakarrik balitz, triste-zian bizi-ko litake; eta aintz balire, ez ginduke geiago bakerik Zeruan; arrabots eta aroasko eta beti «xirula» eta «tuntuna» gintuzke. Beaz Sebastian,

nior Donostiatic.

—Ongi da, Piarres jauna, zure naia egiña izanen da; zuren eskuetan dire gakuak.

Itz eiek erratiarekin batean, Piarres badoa fidantzia osoarekin uzten duelarik bere kargua Sebastianen gain.

Piarres gantzen bezin laster, zeruko atia norbeitek jo zuen: «Pan Pan».

—Nor da hor? dio Sebastianek.

—Ni naiz, San Pedro maitea.

—Ezta emen San Pedrorik geiago, ni naiz San Sebastian ate-zain berria.

—Obeto, obeto, dio atejolariak, zeren, ni naiz zure erritarra, donostiar garbi bat.

—O triste! esaten du Sebastianek, bazoazke nai duzun toki-rat, emen ezta lekurik zuretzat.

—Zer ezta lekurik! errebelatzen ari ote zare Sebastian? Ezta tokirik donostiarrrentzat!!! beaz mundua akabo da.

—Bai ala da. Donostiar guziek omen txarra duzue, ongi bizi-tzea eta munduko ontasunak beizik ez ditutze ikusten.

—Zer diozu Sebastian? Ez gare beraz zuretzat ezerre. Ez gai-tuzu beraz urrikari izanen batere. Gu, zure erritar maiteak?

—Ez! Nola nai duzue urrikari izan dezadan zuentzat! ez ote zarete beti jostalariak? zu bera Zeruko ateraino jauzika «xirula» soñuz etorri zare.

—Otoi Jaungoikoaren miseri-kordiaz, uz nazazu sartzerat... Bertzenaz ere nere jostetak akabo ditut.

—Bai bainan, nola akabo ditutzu, ezin geiagoz?

—San Pedrok ez nau ikusiko, Zeruan den xillo xiki baterat goanen naiz.

—Ez nezake olakorik egin: zeren San Pedrok ezta geiago nigarrrik egiten eta begiak argiak ditu, eta ikusten bazintu igurriko nin-duke laster Purgatorioat eguntxo batzuek pasatzerat.

—Zer da zuretzat egun batzuek Purgatorioetan pasatzea?

—Ase diozu zuk, dio Sebastianek. Ezagun da ez zurela seku-lan izandu toki triste artan. Zoaz nai baduzu zeroni, zeruan ez zare sar-tuko.

—Ez naizela sartuko?

—Ez!

—Ezetz? Ongi da; zure biotzaren gainean ez bait lezaket ezer



egin, ikusiko dugu nere bizkarrak zerbait egin lezaken.

Eta ordu berian, Sebastian eta donostiarra, bat alde batetik eta bertzia bertzetik asi ziren pusaka. Eta nola donostiarrak beire indartsuak, laster giza unek bere sorbalda zabalarekin, atia saltarazi zuen bere partadura edo gontzetarik, eta igurri paseatzerat Sebastian eta bere atia, eta jautzika Zeruan sartu.

Sebastian dena tristatua atiaren antolatzen ari zen noiz eta ere eldu beitzao Piarres.

—Zer dire arrabots andi auk guziak? dio atezain nausiak.

—Zer den? errepikatzen dio Sebastianek. Donostiar batek atia pusketan igurri dau; orra zer den.

—A! zer atrebitu tzarra! Nun da giza gaixto ura? Bear dugu kanporat eman.

—Baina San Pedro, nola nai duzu atxeman santu aukiek guzien artian, eta ikusi onduan nola arrapatu? Zeren donostiarrak kas-kua baino ainitzez zanguak ariñago dituzte, eta ezta ori guti erratia.

Orduan Piarresen keñu bat eginik artzen du esku batez «xirula» eta bertzetik «tuntuna», eta asten da «turruntuntuntun tuntun tuntun». Zeruko oiarzunek gauza bera errepikatzen dute. Denbora berean donostiar garbia, bere bi besuak altxaturik ematen da jautzika eta irrintzinaka.

—Ikusten ote duk oraintxet nun den donostiar atrebitua?

—Bai, dio Sebastianek, ura bera da.

Eta artu zuten donostiar ausarta eta kanporat eman.

Eta ordutik unat ez omen da sartu donostiarrak Zeruan.

Uruski donostiarrentzat au da alegia bat egi batzuek erraten dituen, baina alegia beti. Oxala guziek zeruan sartuko balire.

Harispe, apezu

JESUS AURRARI GONBITEA MATXIANDIARENA JAUNARI

Beteleneko
Aurxo ttikia,
Oso Gizona
Eta Jainkoa,
Baratzetako
Lore gaztia,
Oso garbia
Eta xuria
Sabel garbiko
Frutu gozua,
Xit lurrindua
Eta guria;
Biotzetako
Adiskidea
Oso bakarra
Eta xamurra.
Beteleneko
Aurxo ttikia,
Oso Gizona
Eta Jainkoa,
Zure ikusteko
Dago mundua,
Oso poztua,
Ixill ixilla.
Gau illunpeko
Ipar argia,
Oso berria
Dago begira.
Gaur elurrezko
Kapa xuria
Autsi du lurak
Zutaz beteak.
Beteleneko
Aurxo ttikia,



Goiz ernaturik
 Guziak pozik
 Etortzen gare.
 Zure eskuñuak
 Maite pollitak
 Otzak badire,
 Munduko gauzak
 Guziak otzak
 Balin badire,
 Zu berotzeko
 Goxo egiteko,
 Astaño atsa
 Etxe bat utsa
 Oye bat latza
 Balin baduzu,
 Beteleneko
 Aurxo ttikia,
 Gure lurreko
 Jainko maitea,
 Zu berotzeko
 Biotzen atsa
 Oso guria
 Izanen dugu.
 Atoz mamia,
 Atoz ezta,
 Gure arimetan
 Biotz barnean,
 Loa egiteko,
 Oye burua
 Eta goxua
 Izanen duzu.

Harispe, apezza

ALLELUIA!

*On Kosme Damian Txurrukeko
 nere adiskide errespetagarriari*

Egun goiz aldeko illunar xurian,
 Mendien erdiko iduzki-sorgian
 Piztu da lorios, gure Jaun andia!
 Erran zagun beaz, pozik: «Alleluia».

Goizik ernaturik Madalen maitea,
 Mendian zabilta nigarrez betea,
 Zeren utsa beita Jaunaren obia!
 Bainan piztua da, pozik: «Alleluia!».

Zuk uste zinduen galdu zinduela
 Zuretzat emanik mendian odola,
 Bainan or dakazu, zure Jaun garbia,
 Biotzen egizu, pozik: «Alleluia!».

Baratze-zain on bat ikusi zinduen
 Jaunaren itxura arpegian zuen
 Aditu orduko aren boz ezta
 Zure biotz onak, dio: «Alleluia!».

«Zuk dakazu, Jauna, diozu, gorderik;
 Non da? ura gabe, ez dakat gozorik!»
 Jardesten zaitu eztiki: «Maria!...»
 Eta zuk biotzez, pozik: «Alleluia!».

Aingeru xuri bat obi kanttalian,
 Jarririkan dago arrien gainean,
 Irakusten digu illoial xuria,
 Jaunaren gorputzaz utsa: «Alleluia!».

Ementxet ez dago Jaunarik geiago!
 Dio; alxatu da mendiez gorago



Etsaien erditik, gure Iduzkia!
Ama ikusterat gan da «Alleluia!».

Ama damutua non duzu semea?
Eder eldu zaitzu, zure on lorea?
Orain zuk dakazu zorion andia
Erran zazu beaz, pozik: «Alleluia!».

Semea galdurik zurea ninduzun,
Bainan pekatuaz, bi semez alargun
Egin ziñan, Ama! Jesusen bizia
Piztu da ni baitan. Ama! «Alleluia!».

Harispe, apezka
1886ko apirilaren 21. eguna

JAINKOAREN ARAGIZTATZIA

Obedun ote zen Jaungoikoa aragiztatzia.
(Aurrandea)

—I—

Egi bat da, egitzaille andienek erraten dutena, munduko eta zeruko gauza guziak Jainkoaren ongitasunaren argitzeko eginak izan direla. Zeruek Jainkoaren omena erraten dute. *Coeli enarrant gloriam Dei*. Lurrak bere prestutasuna eta edertasuna, itsasoaren zabaltasunak bere ezneurritasuna, mendiek bere anditasuna, leizondoek bere misterio ezin adiaraztuak. Xoriñuek egunero kantatzen dute, eta gizonen biotzek ganetan. Amodioaren odola ixuria da, alde guzietan arentzat. Guziek belar xume baten barnean bizi diren ulixka ttikietarik, zeru aingerutaraiño, xinaurritik gizonaraiño, lur errautsetik zeru argitaraiño, osto arrabotsetik galernaren xistuataraiño, ur xirripatik, itsasuaren marrumetaraiño, guziek Jaungoikoaren anditasunak, egintasunak, amodioa eta ongitasun guziak, erraten dituzte. Gauza guziak Jainkoak egin ditu, eta nola bera beita on soberanua, eta ongitasun osoa, bera da, bere xede azkena, eta ortarakotz gauza guzien xede. Ortarakotz ere beretzat guziak egiten ditu. Eta ezta ori beredun izatea, edo egoista izatea. Bereduna edo egoista da bere ongia bakarrik billatzen duena bertzeri konturik egin gabe.

Bainan Jaungoikoak denak beretzat egitean, guzien ongia billatzen eta egiten du; zeren bera beita guzien ongi soberanoa, eta azken xede, eta beren naturaleza bere beitz guziak arenganat doazi, urustasun, eta zorion andiarenganat bezala. Ortarakotz beaz, beretzat guziak egitean, andi eta ongiegille agertzen da; zeren bere burua oso ona guzieri ematen beitu. Ontasunezko eta amodiozko itsaso neurri-gabekoa, gauza guziak aren barnetik ateratzen dire, eta tirainak bezala bat bertziaren ondotik ibiltzen dire, gero berriz bereganat etortzeko. Botere soberanoak ez deusetarik egiten dituenak, egin onduan, bere omenaren kantatzerat igurtzen ditu, eta gero bereganat deitzen, eta bere beitan ekien gutiziak betetzen.

Nola adiarazmenduak erraten beitu, gauza guziak beretzat egitean, Jainkoak, ekien gutiziak betetzen dituela, ala ere ikusterat ema-



ten du ez zetzakela bertze xede batentzat egin. Zeren, gauza bat bertze batentzat egitea, bertze aren soberatasuna ezagutzea da. Zuretzat egiten dut zerbeit, beaz ni bainon geiagokoa zare, beaz egiten dutan gauza ortan nere xedeare, zuk zerbeit egin aazten nauzu.

Bainan Jainko guziz soberanuak, eta zorion neurrigabezkoak, bera bainon andiagorik eta obeerik ez du, bera da bere xede bakarra eta osoa.

Beaz Jainkoak deusik ez lezaken egin beretzat beizik.

Beaz gauza guziak Jaungoikoarentzat eginak direnaz geroztik, eguna bainon argi da, gauza bat anbetenaz obeduna izanen dela, zenbatenaz geiago Jainkoaren ongitasunak erakutsiko beizitu.

Zenbatenaz andiago, dirdirantago, eta indarrago argiak bertuko eta distiatuko du, anbetenaz geiago irakusterat emanen du, bere indarra.

Bainan zein argik irakusterat emanen du Jainko iduzki andiaren indarra, nola *Verbum* itz Jainko andiak, gizonenganat etortzean.

Beaz deusek ez lezake geiago erakusterat eman, Jainkoaren ontasuna, justizia, prestutasuna, eta boterea, nola bere gizon egiteak. Ikus dezagun nola.

*Harispe, apezka.
(Aurrandetuko da)*

PENITENTZIAREN GAINEAN

Jaunaren hitza Jonas Amatiren semearenganat jautsi zen eta erraten zioen: «jaiki adi eta Ninibako iri andira oa eta nere aldera konberti edo biurtatzatik guziak, zeren ekien tzarkeriak ene antzinera igan dituk.»

Eta Jonas jaiki zen, eta Jainkoari ies egin zioen.

Untzi baten barnean itsasoan eman zen, eta bazoan bazoan beti. Uste zuen Jainkoari eskapatu, baiñan noiz eta ere ezti eztena untzian beitzoan mugitu eta igitu gabe batere, aize izigarri bat alxatu zen, edoiak beltztu ziren, zerua estali zen, tiraiñak urezko mendi batzuek bezala, bazabiltzan alde batetik bertzerat.

Mendebala eta galernaren erdian untzi gaixoa desmastatua, mastarik gabe bazabillan, artikia tirañetarik tirañetara. Oiu eta deiadarak beizik ez ziren aditzen itsasoaren marraskarekin batean. Oi zer gauza tristea. Guziak belauniko zagozin eta bizkitartean Jonas lo zagoen.

Jaiki arazi zuten laster, eta atzarri ondoan profetak berak erran zuen beorrik zituela falta edo gaizkitasun guziak, eta artiki zuten urera.

Orduan aizia eztitu zen, itsasoa apaindu zen, oiua ixildu ziren, eta untzi gaixoak bere bidea segitu zuen.

Irur egun arrain baten barnean Jonas egon zen eta irur egunen buruan leiorrera etxatua izan zen. Eta Jainkoak berriz itz egin zioen: Jaiki adi eta oa Ninibako iri andira, eta eneganik aditu ditukan itzak errotek.

Orduan Jonas jaiki zen, eta Jaunaren itzaren arabera, Ninibara goan zen. Eta Jonasek oi egiten zuen erraten zuelarik: Orain berrogei egun eta Niniba xautua eta ondatua izanen da.

Eta ordu berian Ninibatarrek Jainkoa beitan sinetsi zuten, eta penitentziatzako arropak artu zituzten.

Urte guzietan garizumako denboretan apez guziek Jonasek bezala oi egiten dute: oraitik denbora guttiren buruan mundua guretzat akabo izanen da: penitentzia beraz bear dugu egin.



Denbora luzerik ez dugu bizitzeko. Zenbeit egun oraiño, zenbeit ilabete, zenbeit urte bear bada eta mundua akabo izanen da guretzat. Gure bizia laburra da: lore baten pare goizian iduzkiaren aintzinean dirdiratzten dugu, arratseko itzalak eldu diren bezin laster lurre-rat eroriak gaude.

Penitentzia beraz, beti penitentzia.

ZER DA PENITENTZIA

Gure penak eta biotzeko damuak bear ote du izan gure biotzak izan lezaken miñik eta dolorerik andiena?

Utrum contritio sit major dolor qui possit esse in natura?

Bere beitaz erraten du San Tomas andiak, gure pekatuentzat, izaten dugun damua, damurik eta miñik andiena da: ezen, kontu egin zazue San Tomasen asmu eta pentsamendu ederrari. Urrikia, biotzeko miña, amodiotik eldu da, eta ortarakotz amodioaren neurria bear du izan. Ezen zenbatenaz geiago maite dugu presuna edo izape bat, eta anbatenaz geiagokoa izanen da gure urrikia, presuna, izape ura ofensatu balin badugu, damu egin balin badiogu. Beraz amodioa andiago presuna damutuarentzat eta urrikia, biotzeko miña andiagokoa izanen da ere.

Beraz unelako amodio eta alako urriki. Bainan mundu untan eta bertzian den amodiorik andiena, karitatezko amodioa da, Jainkoaren amodioa.

Sed amor Charitatis in quo fundatur dolor contritionis est maximus.

Ezen amodioaren neurria maitatuaren neurria da. Gauza bat, edo izape bat geiago da maitagarria eta geiago ere maitatua izanen da. Amores intensio ab objecto, eta ez da deusik, Jainkoa bizein maitagarrigokorik.

Beraz bere beitaz, bere naturalezaz kontrizioa, biotzeko urrikia Jainkoa damutu delakotz, urrikirik eta biotzeko minik andiena da.

Bertze aldetik, biotzeko minak, urrikiak, bere anditasuna eta zabaltasuna, egin duen gaizkiaren eta damuaren anditasunetik, idukitzen du.

Gaizki egiña edo damua andiago eta urrikia naturalki andiagokoa.

Bainan gaizkirik andiena pekatua da Jainkoaren aldetik eta guretik. Jainkoaren aldetik Jainkoa guziz ona, eta guziz andia delakotz, eta ofensaren, damuaren neurria ofensatuaren, damutuaren neurrian delakotz. Gure aldetik, Jainkoak guretzat egin duen zorionetik urrun-tzen gaituelakotz, eta guri galterik andiena egiten gaituelakotz. Gure zorion soberana oso kentzen gaitu.

Beraz kontrizioa edo pekatuen urrikia gure biotzeko penarik eta damurik andiena da.



Bainan erranen nauzue anitzek pena eta damu geiago dutela bertze asko mundukok galte batzuendako, eta nigar geiago ixurtzen dela adixkide eta buraso batzuengatik, Jainkoaren biotzarengatik baino. Urriki eta damu geiago dugula ama baten eriotzeaz gure arimaren eta Jainkoaren galtzeaz baino! Zuek erraten nauzutena egia da alde batetik, bainan bertzetik ez da egia.

Badire bi urriki, edo biotzeko damu, bat gure naian edo borondatian dagoena, eta bestia biotzeko inguruetan dabillana eta nigarretan begitik eta otoitz eta suspira garsuetan agotik ateratzen dena.

Bigarrena sensiblia, bestia ez. Bigarrena izan ditek leemixikoa gabe eta maiz aldiz gure biotza trunpatzen du. Izan ditek egiazko urriki nigarrik gabe, naian edo borondatian: ezen ura da egiazko urriki. Bainan Jainkoak ematen baditu biak obeto da. Egiazko urriki da beraz pekatuentzat izaitea iguntze eta naigabe andi bat zoiñak urruntzen beikaitu, apartatzen beikaitu pekatutik. Itz batez pekatuen erra: unelako urriki eta biotzeko damua da gizonak izan lezaken damurik eta biotzeko miñik andiena: eta una zertako. Zenbatenez gustu geiago izaten da gauza batentzat, anbatenez geiago iguntzen da aren kontrarioa eta arenganik urruntzen da. Zenbatenez geiago adixkide bat maite da anbatenez geiago aren etsaia iguntzen da.

Bainan naturalkiena eta bortizkiena nai dugun eta maite dugun gauza gure azkeneko zoriona da, zorion perfeta, zeren ura beita gure xede, eta betezarri andia, eta arenganat doazi naturalki gure arimako gutizia asmu eta nai guztiak, eta nai tugun guziak gure azkeneko xedearentzat eta zorianarentzat nai ditugu. Ordian pekatua da gure zorianaren kontrarioa eta etsaik andiena.

Beraz pekatua da gauza bat galte andiena egiten gaituena eta ortarakotz geiegi igundu ez dezakeguna. Beaz pekatuarengatik izaten dugun urriki eta biotzeko miña damu eta urrikirik andiena da.

Bertze urriki biotzean dagoena, eta nigarretan maiz agertzen dena, naiaren, borondatearen, urrikiaren ondokoa da. Borondatean edo naian du bere astapena. Aldi batzuez ere naturalezaren jarkiatik edo ekarraiatic eldu da. Badire presuna edo izape batzuek naturalki izakoiro, sortizkoiro nigar aise egiten dutenak: eta nola gure ekidal eta indar guziek indar eta ekidal leemiziko bat, zoina beita ekien ama bezala, segitu bear baitute.

Indar leemixikoa unkitua denian, nola beita bertze guzien ama, bertze guziak arekin batian unkituak dire. Ortako beaz gure naia

edo borondatea damutua denean, gure biotzak ere sentitzen edo bidabitzen du unkitze bera.

Bertze aldi batzuez, geronek berek gure gaizkiez ongiri oatzian eta ekieri begira egotian, gure biotza alxatzen, ernetzen eta pizten dugu eta nigarrak gure begietarik ateratzen ditugu. Beraz nigarrak eta biotzeko damuak dire gure naiaren edo borondatiaren ondokoak, edo guk gurenek pizten eta egiten duguna gure pekatuen aintzinian.

Bigarren urriki ori, gure borondatetik, naietik edo gure pekatuen ikustetik eldu daien, ez da neurri gabekoa, ez da urrikirik eta damurik andiena, zeren, fakultate edo indar ekidal bakotzak, bere betezarri eta xede berekia, bakarrik badu: soñua eta arrabotsa bearrien betezarri berekiak dire, argia begien betezarria. Ez dute bearriek ikusten ez eta ere begiek aditzen zeren bakotzak ba beitu bere xede osoki bakarra. Gauza bera da gure arimaren bertze indar eta ekidal guzien-tzat. Orai nere arrazonamendua edo aritadiera aditu balin baduzue, ikusiko duzue nola negar geiago egiten dugun ama baten edo adixkide baten galtzeaz gure pekatua urrikiez baino. Gure borondatia edo naia megopearra edo espirituala beita betezarri espiritual edo megopear unkitua izanen nola adiera asmu eder batez. Eta gure biotza sensiblia, gauza sensible batzuz unkitua izanen da, nola begiak argiaz. Gauza sensible batek geiago unkituko du gure biotza, gauza espiritual edo megoper batek baino, zeren xuxenkiago eldu zaio. Korputztiar gauzak xuxenkiago gorputzarat doazi. Eta nola ama baten galzea gauza sensiblia eta migorra beita geiago sentitzen du gure biotzak bainan ez naiak edo borondateak. Nola bekatuaren urriki gauza espiritual edo megoper bat beita gure borondate espirituala eta megopera geiago unkitua da urriki ortaz: bainan ez biotza. Urriki ori jausten denian borondatetik biotzera fakultate sensiblerat, biotza ez da xuxenki unkitua, urriki artaz, bainan naiaren edo borondatearen komendioz eta artez.

Beraz urrikiak bear du izan berexiki borondatean. Ez beraz kexu izan zure beitan biotzean ez balin baduzu sentitzen min andiagokoa zure pekatuentzat zure korputzen sufrikarientzat baino edo zure amaren eriotzearentzat baino. Ez da bear negar egitea ez eta ere biotzean min gaita bainan borondatean pekatua arnegatzea, iguntzea aal bezinbat ori bakarri da bear.

Badire presuna batzuek emaiten direnak Jainkoaren aintzinean ondo beren biotza etsaminatu gabe, eta urriki batez pekatu guziak garbituak direla, uste dutenak. Gure penitentziak, urrikiak, ez du bear izan itsutua, bainan argitua.



Ortarakotz gure kontzienzia esaminatzian bear dugu ikusi, zer diren pekatu andienak, eta Jainkoari damu andiena egiten dutenak, eta gure arimari kalte andienak. Eta pekatu ekientzat bear dugu izan urriki andiagokoa: zeren urrikiaren neurria pekatuaren neurria da. Ez dugu pekatu ttiki batentzat andi batentzat bezala urriki izan bear. Pekatua batentzat bear dugu urriki geiago izan bertzenzat baino, pekatu arrek geiago ofensatu balin badu gure Jainkoa. Beraz bear dugu ondo jakin zen diren gure pekatuak, zen direna txarrenak. Ez da oraino ortan akabo, gure burua anzkorra da gure pekatuek. Konfesatu andikan ez gera geiago akordatzin eta oroitzin gure pekatuek. Iduritzen zaiete asko presuneri pekatu esana, pekatu barkatua dela, eta ez dela geiago egitekorik konfesiaren ondotik. Eta ikusten ditugu ortarakotz ainitz asko beti jostetan, ondo jan, ondo eran, eta mundu untako atsegin guzietan bizi direnak. Nere pekatua konfesatu dut, apezak penitentzia eman daut, beraz ez dut geiago egitekorik eta unela esatiarekin iduritzen zaiote salbatuko direla.

Ez, ez; gure bizi guzian urrikia eta damua izan bear dugu gure pekatuentzat. Ez egun batez, ez bi egunez, bainan beti. Beti urrikian bear dugu bizi zeren Jainkoak beti maite gaitu eta gure pekatua gure begien antzinean bear dugu beti izan. Gauza ori David erregeak esaten zuen, ene pekatua beti ene begietan dago *peccatum meum contra me est semper*. Ninibatarrak aditu zutenian Jonasen boza, urrikitan sartu ziren, negar egiten zuten eta esaten zuten: eta bat bedera bere bide gaixtotik eta eskuan gainean duen tzarkeriatik atera bedi. *Et convertatur vir a via sua mala et ab iniquitate quae est in manibus eorum*.

Eta autsez beren buruak estali zituzten, eta beren korputzak kastigatu zituzten. Eta guk zer egiten dugu, kristau maiteak, gure Jainkoarentzat? Ezerre ez. A! gure Jainkoa egiazki maite balin bagendu, zer ez du gunduke eginen onentzat! Zer ez da egiten maite den presunarentzat? Maite denian norbeit, adiskide bat, irauntzen diren sufrikari guziak arentzat gozuak eta eztiak dire. Beraz, kristau maiteak, nai balin badugu izan egiazko urrikia, nai balin badugu egiazki gure urrikiaz gure pekatuak garbitu, maita zugun Jesus oso maitagarria, eta amodioak esanen gaitu zer bear dogun egin gure Jainkoarentzat eta gure pekatuak izanen dire garbituak ez bakarrik gure urrikiaren nigarrez, bainan ere gure penitentiaren odolez.

Ezerre ez dugu geiegi izanen gure amodioarentzat eta Elizako santu andiek bezala gure gorputza kastigatuko degu. Zer ez duzue egiten, zer ez du ama batek bere semearentzat, maite duzuen presunarentzat zen-

bat gau ez duzue pasatzen, nigarretan zenbat egun ez zaizte ibiltzen, penetan eta sufrikarietan, eta esanen duzue gero Elizaren penitentziak andiegiak direla.

Amodiotik eldu da egiazko urrikia, egiazko penitentzia: maite zugun beraz gure Jainkoa eta gure pekatu guziak barkatuak izanen dira.

San Agustin andiak esaten zuen: Ene Jainko indazu bakarrik zure amodioa, eta besterik ez.

Bai! maite zugun Jainkoa eta orduan gure urrikia izanen da egiazko urrikia eta kontrizio, eta orduan gure pekatu guziak garbituak oso estaliak izanen dire. Geren San Tomas andiak esaten zuen bezala: Urrikia edo kontrizioa karitatez eldu dena, edo biotzeko min sensibletik, izan diteke aren andia non pekatua eta pekatuaren ondoko kastiguak kentzen baiditu. *Contritio sive ex parte charitatis, sive ex parte doloris sensibilis consideretur, tanta esse potest, ut ad plenam culpae et penae delectionem sufficiat*.

Harispe, apezka